



ARGIA

ASTRA

AUTOGESTIOAREN
HAMARKADA
GERNIKAN



ARGIA SARIAK 2016
EUSKAL KOMUNIKAZIO LANIK ONENAK

ANTXON GOMEZ
SEGURA AUZIAZ ETA EZKER ABERTZALEAZ

BLA BLA BLA BLA BLABLA BLA BLA BLA BLA BLA
BLA BLA BLA BLA BLABLA BLA BLA BLA BLABLA
FEMINISMOA ETA EUSKALGINTZA: BI BORROKEN
ARTEKO HURBILKETA XUMEA BLA BLA BLA LA
BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA
BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA
BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BL
ALDAKETA NAFARROAN BLA BLA BLA BAL
BLA-BLA BLA BLA BL-BL-BL-BLAAA BLA BLA
BLA BLA BLA BLA BLABLA BLA BLA BLA BLA BLA
BLA BLA BLA BLA BLA **KLIMA ALDAKETA** A
BLA BLA BLA BLA BLABLA BLA BLA BLA BLABLA
BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA
GARAI KONPLIKATUAK EUROPAKO EZKERRENTZAT
BLA BLABLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA
BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA
LOMCE, HEZKUNTZA HANKAZ GORA BLA BLA BLA
BLABLA BLA BLA BLA BLABLA BLA BBLA BLA
BLABLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA LA BLA
BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA
BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA
BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA

HAUTATZEN DAKITENENTZAT

9,95€

Eskura ezazu!

943 371545

www.argia.eus/denda - denda@argia.eus

**ARGIaren asteroko harpidedunak
doan jasoko du postaz**



PANORAMA

- 4 Asteko argazkia
- 6 Albisteak
- 10 Gazteluko Plazatik
- 11 Hor dena gailu
- 12 Net Hurbil

IRITZIA

- 19 Mikel Zurbano
- 20 Rosa Mari Martin Sabaris
- 21 Aingeru Epalza Itxaro Borda
- 22 Joxerra Aizpurua



Ezker Abertzalearen azken urteetako bilakabidea begirada kritikoz aztertu du Antxon Gomez ANVko idazkari nagusi ohiak. (ARGAZKIA: DANI BLANCO)

- 34 LURRAK IRAULIKO GAITU
- 36 DENBORAREN MAKINA
- 42 KULTUR KRITIKA
- 44 ZUZENENKO EMANALDIA
- 45 BERTSOAK
- 46 DENBORA-PASAK
- 47 ARGIA KOMUNITATEA
- 52 ARGI-KONTRA: JOHANNA ALANEN
- 54 BERANDUEGI

AZALEKO ARGAZKIA: DANI BLANCO

SAKONEAN

- 14 | Jon Arretxe: "Jendeari etorkinenganako errespetu pixka bat sentiarazten badiot, ni pozik" / Reyes Ilintxeta
- 22 | Naziek sutan kiskaltzeko bezain bakezale ziren nobelak / Santi Leoné
- 27 | Txanponaren beste aldeak: Eicom-Som Conexió / Lander Arretxea Bereziartua
- 28 | Antxon Gomez, ANVko idazkari nagusi ohia / Axier Lopez, Xabier Letona
- 32 | Egiatarren ondorioa: uste baino gehiagorekin egin daiteke euskaraz / Onintza Irureta Azkune
- 38 | Astrak 10 urte. Ezinezkoak ziruditen bide propioak eraikitzen / Asier Arrate
- 48 | ARGIA Sariak 2016: norbera abiapuntu, gizartea helburu / Iure Eizagirre

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA HARPIDEDUNEN ETA LAGUNTZAILEEN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOI.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



DOAN ETA LIBRE

ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARA DITZAKEZU, GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea.

Lehendakaria: Bego Zuza. **Zuzendaria:** Estibx Eizagirre.

Erredakzioa: Ane Urkola, Axier Lopez, Estibx Eizagirre, Garbine Ubeda, Gorka Bereziartua, Iker Oñate, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Unai Brea, Urko Apaolaza, Xabier Letona.

Diseinua: Sergio Labrador. **Argazkilaria:** Dani Blanco.

Produktzioa: Antza S.A.L.

Harpidetza: Iraitz Agirre.

Salmenta: Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.

Idazkaritza: Aloña Sorluze, Bego Zuza.

Administrazioa: Jone Arzallus, Mari Karmen Lloarte, Marijo Aiertza.

Web garapena: Asier Iturralde.

HELBIDEAK:

Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxe: 943 361048.

Lapuri, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163.

Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580.

Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285.

POSTA ELEKTRONIKOAK:

Komertziala: komertzial@argia.eus. Harpidetza: harpide@argia.eus. Erredakzioa: kazeta@argia.eus.

Interneten: www.argia.eus.

Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E.

Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L.

HARPIDETZA:

Euskal Herria eta Espainiako estatua: astero, 12 € hilean; hamabostero, 6,5 € hilean; hilean behin, 3,5 € hilean.

Beste atzerriak: 15 € hilean. Airez: 24 € hilean.

PANORAMA

Herritarrak etxebizitza eskubidearen berme

Urtarrilaren 26an BBVA banketxeak etxerik gabe utzi nahi izan zuen Iruñeko Txantreako familia bat. Legeak lege, etxegabetzeak geldiaraztea badagoela erakutsi zuen herri mugimenduen eta ordezkari politikoen arteko batuketak. Gaur egun uste duguna baino ohikoagoak dira etxegabetzeak Euskal Herrian. Berbarako, Barakaldon otsailean zortzi kaleratze egiteko agindua emanda dago, Berriotxoak taldeak salatu duenez.

Argazkia: Ekinklik Argazkilariak





“Lantegia dudarik gabe bideragarria da eta etorkizuna du”

Juan Carlos Diaz,
Sestaoko Arcelor Mittal
enpresako komite burua.

argia.eus-en ikusgai



Ekaitz in da house

Bertsolariak eta hip-hop-lariak elkartu ziren Gasteizko Gaztetxearen free style txapelketan, Ekaitz Samaniego presoaren askatasuna eskatzeko.



“Berdintasun aldetik, Kongresukoak aurpegi zuriketa da”

Onintza Enbeita EH Bilduko diputatua Espainiako Gorteetan, Sorginak bideo-sortaren 11. saioan.



QUADELL-CC BY SA

Euskal Herriko azken otso talde egonkorra hil izana salatu dute

Unai Brea
@unaibrea

Lau otso hil dituzte Karrantzan urtarrilaren 23 eta 24ko asteburuan Bizkaiko Foru Aldundiak antolatutako ehizaldi bitan. Aurreko asteetan inguruko abereek jasandako erasoen ostean hartu du Aldundiak neurria. *Deia* egunkariaren arabera, eraso horietan hogeitaz ardi suertatu dira hilik eta beste hainbeste zaurituta, besteak beste.

Euskadiko Otso Taldeak gogor salatu ditu ehizaldiak, eta esan du “seguruenik Euskadin bizi zen otso talde bakarra ezereztu dutela”. Aldundiak, prentsa ohar labur baten bidez, esan du Karrantzan arau guztiak errespetatu direla, “ganaduaren babesaren eta ehizatzeak ez den espezie baten kudeaketaren arteko oreka mantenduz”. Otso Taldeak, aldiz, hipokrisiatzat jo du Aldundiak

oreka aipatzea: “Helburua Karrantzako otso guztiak desagerraraztea zen, ez da inolako kuporik ezarri ehizaldirako”.

Otsoa mehatxupeko espezie izendatzeko eskaria

Eusko Jaurlaritzaren jokabidea ere kritikatu du Otso Taldeak. Zehazki, gogoratu dute duela urtebete inguru otsoa mehatxatutako espezieen zerrendan sartzeko eskatu zutela 26 talde ekologistak; Jaurlaritzak oraindik erantzunik eman ez izanaz kexatu dira, erantzun hori 2015eko udarako iritsiko zela hitzeman arren. Dagoeneko 47.000 sinadura inguru bildu dituzte otsoa EAEko Mehatxatutako Espezieen Katalogoan sartzearen alde. Urtarril amaierara arte iraungo du kanpainak; ondoren, izenpeak Iñigo Urkullu lehendakariari helarazten ahaleginduko dira.

“Baigorri herriarentzat gauza ederra izan da errefuxiatuen etorrera”


JEAN-MICHEL COSCARAT, BAIGORRIKO AUZAPEZA

Joan den azarotik 49 errefuxiatu izan dituzte Baigorri. “Herrian denak ez ziren ados ongietorriarekin”, onartu du auzapezak, “pixka bat beldurrarekin ziren”, baina dena “biziki ontsa” joan dela eta hasierako errezeloa elkarbizitza eder bihurtu dela adierazi du. Agur-festa egin berri diete Baigorri errefuxiatuei, orain bizileku duten atsedenaldira zentroa otsaila erdirako itxi behar dutelako. **EUSKADI IRRATIA (2016/01/25)**



EGILEA: VISUALIZING PALESTINE
ITZULPENA: AXIER LOPEZ

SEGREGAZIOAREN TIPOLOGIAK




1
ERREPIDE GUZTIAK
Israelek errepide nagusien bi aldeetako lurra desjabetu ditu.



2
557 ERREPIDEA
Lurpeko errepideak zonalde palestinarren artean, sarri sarrera burdin hesiek mugatuta.



3
ERREPIDE GUZTIAK
Checkpointak bidean eta debekatutako errepideen sarbideetan.



4
45 ERREPIDEA
Guztiz bereizitako errepideak, bata bestearen paraleloan eraikiak.



5
443 ERREPIDEA
Hesiek eta lubakiek errepide nagusietarako sarrera mugatzen dute, gune palestinarren artean bidaiatzea galaraziz.



6
60 ERREPIDEA
Israeldarrentzako soilik erabilgarri dauden koloniek lotutako zubi eta tunelak. Harresiaren ekialdean.



BEREIZITAKO ERREPIDE SISTEMA BAT

NON MATRIKULAREN

29:521-65

Matrikula israelarra

- ✓ Soilik israelarrentzat erabilgarri
- ✓ Israeldarrentzat erabilgarri
- ✓ Israeldarrentzat erabilgarri Gazan izan ezik

KOLOREAK

AGINTZEN DUEN

ZEIN ERREPIDETAN

GIDATZERIK DUZUN.

4-0039-43

Matrikula palestinarra

- ✗ Sarbide ukatua palestinarrentzat
- ✗ Sarbide mugatua palestinarrentzat
- ✓ Palestinarrentzat erabilgarri





Ez da kasualitatea juxtu Bilbo Zaharra izatea EAEn bizi-itxaropen txikiena duen zonaldea.

ZARATEMAN / WIKIMEDIA

Gasteiztik Bilbora 10 urteko aldea bizi-itxaropenean

Mikel Garcia Idiakez

@mikelgi

“Bizi-itxaropenean eragin dezaketen faktoreak asko dira, baina horien artean inportanteenetarikoa bizi-baldintzei lotutakoa da. Ez da kasualitatea juxtu Bilbo Zaharra izatea EAEn bizi-itxaropen txikiena duen zonaldea. Gainera, desoreka ez da bakarrik auzo pobreenen eta aberatsenen artekoa, lotura lineala da, graduala: zenbat eta maila sozioekonomiko altuagoa izan auzoak, orduan eta bizi-itxaropen handiagoa dute bertako bizilagunek”. Hala azaldu du Amaia Bacigalupe soziologo eta Osasun Publikoan doktoreak, Euskadi Irratian. Eusko Jaurlaritzako Osasun sailetik bideratuta, EHUko Opik ikerlari taldeak egin du bizi-itxaropenari buruzko txostena, eta taldekideetako bat izan da Bacigalupe.

Bizi-itxaropenean bakarrik ez, norberaren osasun fisiko nahiz mentalean ere maila sozioekonomikoak erabateko eragina duela dio Bacigalupek, “osasuntsu bizi ahal izateko gaitasunean eta gaixotzeko probabilitatean”.

Egoera sozioekonomikoa honako adierazleen arabera neurtu dute: langabezia tasa, ikasketa baxuko biztanleen portzentajea, eskulangile eta kualifikazio gabeko bizilagunena, eta behin-behineko kontratuak dituztenena.

Gasteiz eta Ondarreta vs. Otxarkoaga eta Pasai San Pedro

Arabak orokorrean eta hiriburuka Gasteizek ditu EAEn bizi-itxaropen datu altuenak. Kontrara, Bilbon daude bizi-itxaropen txikiena duten zonaldeak: Bilbo Zaharra, Zazpikaleak, Otxarkoaga, Zornotza...

Gipuzkoan, datu txarrenak Pasaia inguruak ditu –“kutsadura eta ingurumen faktoreek ere eragina dute, nola ez”, adierazi du adituak–, eta zehazki, Pasai San Pedro eta Donostiako Intxaurren, Bidebieta eta Altza dira bizi-itxaropen txikiena dutenak. Gipuzkoako datu onenak berriz, Amara eta Ondarreta auzo donostiarrek dituzte. “Leihotik begiratu eta auzoa baloratu, norberak nahiko argi aurreikus dezake inguru horrek zer nolako eragina izango duen bere bizi-itxaropenean. Eta hori bortitza da”.

Opik taldearen txostenak mezua helarazi nahi die Osasungintza arloko langile eta politikariei: euren programak nahitaez harremanean jarri behar dituztela beste sektore askotakoekin, eta elkarlanean aritu behar dutela, pobreziari aurre egiteko programekin, etxebizitzaren egoera hobetzeko politikekin, eskola porrota gainditzeko proiektuekin...

EKONOMIAREN TALAIAN

Laugarren industri iraultzarantz?



Juan Mari Arregi

Oraindik 2007ko finantza eta ekonomi krisi handiaren ondorioak jasaten ari garen arren, jadanik zenbaitzuek hasi dira hitz egiten laugarren industri iraultzaz, Txinako egoerak eta petrolioaren prezio apalek sustaturik. Krisiak milioika enplegu eraman ditu, beste hainbeste lagun pobretu eta gutxi batzuk izugarri aberastu dira. Historian inoiz izan den desberdintasun handiena dago orain: planetako 62 pertsona aberatsenek 3.600 milioi pobreenek adina dute.

Beste industri iraultza bat datorrela egia bada, eta badaude zantzuak norabide horretan, badakigu zein izango diren bere biktimak. Betikoak. Langileria eta herritarrak. Lanaren Nazioarteko Erakundearen arabera 2007ko Atzeraldi Handia hasi zenetik 27 milioi lagun gehiago daude lanik gabe, eta langabeziak gorantz segituko du 200 milioira iritsi arte. Davosen esan dute hurrengo bosturtekoan galduko diren zazpi milioi enplegutik bi baino ez direla berreskuratuko; ia beti kalitatez okerragoak izango dira gainera.

Badakigu kapitalismoak ez duela arimarik, eta enpresen diruak ez du nazionalitatearik. Bizirauteko eta kapitala pilatzen segitzeko, sistemak enpresak ixten jarraituko du, beste batzuk deslokalizatu egingo ditu, soldatak jaitsi, enplegua prekarizatu... Euskal Herrian jada ikusten ari gara hainbat zeinu kezagarri: AHV zenak, egun Arcelor Mittal-en esku dagoen ACB enpresak, urtebetez itxiko du behin-behinean, eta gero behin betiko. Araban, Aernnovak jarraitzen du ehunka lanpostu murrizten. TRW multinazionala ere prest dago Nafarroan ehunka lanpostu desagerrarazteko. Bitartean, herioan daude makina bat enpresa txiki eta azpi-kontratatu. Industri iraultza kapitalistek ekarritako ondorioen zati bat baino ez da hori.



IRANTZU PASTOR

Elkartasuna konpromiso bilakatzeko Babesgunea

IRUÑEA. Babesgunea eraiki du Askapenak Iruñeko Kalekalden. Ilegalizazio arriskuaz ohartarazi nahi dute eta jendearen "elkartasuna konpromiso" bilakatu. Erakunde internazionalistako Walter Wendelin, Gabi Basáñez, Unai Vazquez, David Soto eta Aritz Gamboa epaitu zituzten joan den urrian Madrilén. Haien aurkako sei urteko kartzela zigorrak gain, 30 urteko ibilbidea duen Askapena mugimendu internazionalista desgiteko eskatu du fiskaltzak. Erabakiaren zain daude orain eta espetxeratzeko arriskuan dira.

2018, ekonomia sozial eraldatzailearen urtea?

Urko Apaolaza Avila

@urkoapaolaza

Bruselan GUE talde parlamentarioak antolatutako Ekonomia Sozial Eraldatzailearen I. Foroan aurkeztutako ekimenetako bat da 2018 urtea hala izendatzeko eskaria egitea Europar Batasunari.

Ez deitu Social Business

"Ez sartu dena zaku berean mesedez!" egin zuen oihu foroan Marie-Chirstine Vergiat parlamentari ezkertiarak. Neoliberalismoa hainbat kontzeptu erabiltzen ari da ekonomia soziala bere arauetara makurtzeko.

FinHaUntzak

Herritarrek kontrolaturiko berezko finantza tresnak eduki beharraz asko hitz egin zen Bruselan. Izan Grezian Tesalonikako ur konpainia komunitario bihurtzeaz, edo Kroazian banku etikoak dirua beharrean ahuntzak elkar-trukatzeaz.

Hegoamerikako buen vivir eredu

Ekuador eta Boliviako *buen vivir* aipagai izan zuen Jean-Luis Laville katedradunak. Bere ustez, "Europar [demokrazia inklusiboaren] memoria kolektiboa berreskuratu behar da". Ariketa hori egin dute Hegoamerikan.

ERREFUXIATUAK



10.000

haur errefuxiatuen arrastoa galdu dutela jakinarazi du Interpol polizia europarrak. Horietako asko maf en esku egon daitezkeela adierazi dute, esklabo gisa.

26.000

adin txikiko bakarrik iritsi ziren iaz Europara, euren lurraldeetako gatazketatik ihesi. Hala azaldu du Save The Children-ek.



TOXIKOAK ARROPAN

Greenpeace erakundeak "gizakien osasunerako eta ingurumenarentzat arriskutsuak diren substantzia toxikoak" aurkitu ditu The North Face, Columbia, Patagonia, Mammüt eta Haglöfs marketako mendiko arropetan.



ZIZPA GAZTETXEA MARTXAN

Gaztetzaren aldeko borroka luzea izan dute Baionan, eta ateak ireki ditu azkenean. Ekintza ugari antolatu dute dagoeneko, eta hiriko eragile desberdinek erabiliko dute gunea.



INDAR GORRI-REN AURKAKO POLIZIA OPERAZIOA

Espainiako Polizia Nazioanalek eta Guardia Zibilak egindako sarekadan Indar Gorri Osasunako zale taldeko kide ugari atxilotu dituzte, ustez "erakunde kriminal bateko" kide direla egotzita. Iruñeko 2. Instrukzio Epaitegiko epaile Fermin Otamendik agindu du operazioa.

Salomonen itzala ote da Mendozaren atzeko hori?



Xabier Letona

@xletona

OTSAILAREN 13-14AN EAJk *Batasuna eta indarra* agiri politikoa onartuko du Iruñeko Baluartean egindako batzarrean. Testuaren oinarrian ez da ezagutzen ez denik, baina agirian esaten denak aurrera eginez gero, egoera berrietara eraman gaitzake: bigarren trantsizio batera, jeltzaleek azpimarratu duten moduan. Testu jeltzaletan oso ohikoa den gisan, potentzialitatea bada; errealismo jeltzalearekin uztartu ondoren zer aterako den, hori beste gauza bat da. Errealismo jeltzalean funtsezkoa da Moncloan nork agintzen duen; are funtsezkoago da Ajuria Enean nor den, baina ideia horrek ez die arazo handirik sortzen, azken hamarkadatan han batez ere beraiek agindu dute eta. Abenduaren 20ko hauteskunde emaitzekin hori Gasteizen ere aldatuko den ikusgai da; samurra ez dirudi, baina ezinezkoa ere ez. Pistak Espainiako Gobernuaren osaketak emango ditu.

Euskal Herriari begira, dokumentuaren oinarria edozein abertzalaren haginak zorrozteko modukoa da: Ibarretxe Plana zena eta Loiolan 2007an EAJk, PSE-EEk eta Batasunak lortutako aurreakordioa, orain hobeto dakigunez, Batasunak onartu zuena, baina ETAk eta ezker abertzaleko beste sektore batzuek ez. 2013aren amaieran EH Bilduk berak bi oinarri horiek eraman zituen Eusko Legebiltzarreko autogobernuaren lan-taldera. Biek tresna berberak eta ezin topo egin? Halakoa da politikaren labirintoa, funtsean gehienetan garrantzitsuena ez delako *zer* izaten *noiz*, *nola*, *norekin* eta *zertarako* baizik. Eta hor nekez ikusten da adostasunik oraindik.

Beste bektoreren bat behar da eragiketa horrek bestelako emaitzarik izan dezan. Ahal Dugu izan daitekeen ikus-

gai da, baina denak adierazten du Iglesiasen alderdia geratzeko etorri dela euskal gizartera. Eta eragiteko. Jeltzaileen agiria ondo kokatzeko, halaber, garrantzitsua da ulertzea legealdi baten amaieran gaudela eta aurki –teorikoki udazkenean– Eusko Legebiltzarreko hauteskundeak izango direla. Ez da komeni ahaztea, 2011ko EAeko hauteskundeetan kontsulta bat agindu zutela 2015erako beren hauteskunde programan. Edo merezi du kontuan izatea Eusko Legebiltzarrean boto soberanista oso nagusi izanda iritsi dela amaiera penagarri batera autogobernuaren lan batzordea.

Jeltzaileen agiria ondo kokatzeko, halaber, garrantzitsua da ulertzea legealdi baten amaieran gaudela eta aurki –teorikoki udazkenean– Eusko Legebiltzarreko hauteskundeak izango direla

Batasuna eta indarra, Iruñean onartu zen (1977) eta onartuko den (2016) testu baten titulua da, baina izan zitekeen baita ere hauteskunde kanpaina luze bati hasiera emateko lelo eraginkor bat.

MADRIL ALDEAN ERE hauteskundee-tarako lelo bila ari dira jadanik alderdi nagusienak, dagoen gobernu-korapiloa-

rekin aukera hori ere ezin baita baztertu. Boterean, hala ere, koalizio gobernu handiaren aldeko bultzadan jarraitzen dute; Europar Batasuna, Ibex, *El Mundo*, *El País* eta abarrek garbi dute. Baina Don Inorrez zena matxinatu egin zaie PSOEren idazkaritza nagusitik eta orain erditik kendu behar, pentsatu baino lehenago.

Horretan ari dira, lotsa gutxirekin gainera, Pedro Sanchezek militantei kontsulta egiteko egindako iragarpenari *El País*eko editorialak (urtarrilak 31) emandako erantzunak erakusten duen legez. *PSOE ez da CUP* zioen editorialaren tituluak eta hala testuaren zati batek: “Buruzagiak arazoak ditue-nean oinarri dei egiteko duen joera hori erdipurdiko politikarien eta erakunde populisten heldulekua da”. *El Diario*koek, aldiz, laster erreskatatu zuten 2013an Alemaniako sozialdemokratek Angela Merkelekin lortutako akordioa oinarrietara eraman zutenekoa, hura ez baitzen politikari kaskarren kontua, “populismoen antidoto bihurtu behar-ko litzatekeen sakontze demokratikoa” baizik. Batek daki nola deituko zaion jokamolde horri kasino-kazetaritzaren estilo-liburuetan.

NAFARROAN ERE aste garrantzitsua izango da. Foru Gobernuak hezkuntza-ko Lan Eskaintza Publikoarekin eta irakasleen zerrenda bakarrarekin zer egin erabaki beharko du. Edozein irtenbidek ekarriko dio egurra, beraz, duinena eta politikoki bere printzipioekin zintzoena iragarritako asmoei eta zerrenda bakarraren ideari eustea litzateke. Ikusgai hau ere, baina ez dakit Mendozaren atzean ikusten den hori ez ote den Salomonen itzala. ■



Bizi osorako zorpetutako ikasleen belaunaldia Britainia Handian



Pello Zubiria Kamino

@pellozubiria

Bere unibertsitateak mundu aberatseko garestienak bihurtu eta estudianteak murrizketen biktima eginik, David Cameronek denbora bonba piztu du Britainia Handiko gazteriaren oinetan. Unibertsitateko denboran 60.000 euroko zorrak pilatuko dituzte, askok ezingo dituztenak kitatu gutxienez 50 urte bete arte.

“Ikasleen zorra handitzeak belaunaldi oso bati injustizia sakontzen dio”, idatzi du *The Guardian* egunkarian Will Hutton Hertford Collegeko zuzendariak. “Gazteei emandako tratu honekin Britainia Handia sortzen ari da estratifikazio handiena, mugikortasun sozial txikiena eta krudelki injustua den gizarte bat”.

2012ko apirilaren 25ean AEBko ikasleek *One Trillion Day* eguna ospatu zuten, munduan beste inon baino zorpetuago zeudela salatzeke. Ikasleen %67k zorrak eginda amaitu zuten lau urteko karrera. Hiru urte beranduago, britainiarrek ostu diete lehen postua *ranking* tristetan: diplomatu berrien %80tik gora zorpean bizi dira.

Hari horri tiraka unibertsitate ingelesen ikusi dituenak Parisko *Basta!* kazetan kontatu ditu Emmanuel Sanseauk: “*Pourquoi les étudiants britanniques croulent sous les dettes*”, alegia ikasle britainiarrak zergatik lehertzen diren zorretan itota.

Hasteko bisitatu du Manchesterreko unibertsitatea. Harritu da hain campus ederra aurkituta, txukun mantendua, zuhaitzez betea, hiri kutsatuaren erdian oasi bat legez. Harik eta haragizko unibertsitarioekin egin duen arte topo.

Emmak 21 urte dauzka eta... 27.000 librako zorra (35.000 euro). Estatuak emandako kreditua ordaintzen hasiko da urteko 21.000 libra (29.000 euro) irabazten hasiko den egunean.

Emma: “Aitaren eta amaren soldat batuta urtean 30.000 libra irabazte

dute, sakrifikatzen dira nik ikas dezan. Ni nola edo hala ateratzen naiz aurrera, atera zaidan ordutako lantxo bati eta eguneroko gastuen kontrolari arreta gehiago jarritz ikasketei baino. Ez naiz kexatzen, nire lagun batek ordezkapeak egiten ditu, hamabi ordu gauez, eta bizi sozial osoa eten behar izan du”. Al-diz, bere unibertsitateko zuzendariak urtean 251.000 libra irabazten omen ditu, hileko 29.000.

Cameronen gobernuak murrizketen gerra hasiz geroztik, unibertsitateek hiru halakotu egin dituzte tasak, 3.000 libratatik 9.000taraino. Beste eskuarekin, Cameronek ikasleentzako poltsa edo beka sistema ezabatu du. Milioi erdi ikasle britainiarrentzako lehen gutxi – urtean gehienez ere 3.387 libra (4.600 euro) –, baina orain batere ez. Ordaine-tan, kreditu sistema eskaintzen zaie.

Hiru urteko karrera burutu duten diplomadun zorpetuek batz bestea 44.000 librako (63.000 euro) zuloa daukate. Pezetatan hamar kilo pasatxo. Institute for Fiscal Studies erakundeak kalkulatu du gehienak 50 urte beteta ere ordaintzen ariko direla.

Lizentziatu bat iristen denean urtean 21.000 libra irabazten, hortik aurrera Student Loans Company estatuaren kreditu konpainiak %9a deskontatzen dio atzeratutako mailegua kitatu artean. Kenketa hau amaitzen da hasi eta 30 urtera, zorra osorik ordaindua izan edo ez.

Estudianteei denetara urtean 10.000 milioi libra aurreraturik, Estatuak sekula-



ko mailegu meta egin du: gobernuak kalkulatu du 2018a bitartean 100.000 milioi libraren (138.000 milioi euro) muga gainditua izango duela. Konparazio bat egiteko, 2014an erretiroen aurrekontu osoa 103.000 milioi libratkoa izan zen.

Ikerketa batzuek erakutsi dutenez balitekeela %45era iristea zorra kitatu ezingo duten diplomatuen kopurua, Erresuma Batuan hasi dira entzuten alarma deiak, denbora bonba bat dagoe-lako lehertzeko abiarazia. Finantza ministerioak berak kalkulatu du %48,6ra iristen badira ordaintzen ez dutenak, Estatuari garestiago aterako zaiola oraingo sistema lehen berak desmuntatu duena baino. Estatua argaltzeko aitzakiarekin, zor publikoa handituko du sistemak.

Gurasoen pentsioak haurrek ikasteko

Ordaindu ezinik dabilzan ikasle askok bere burua aurkitu du Interneteko mailegu-eaile lukurreruen hatzapparretan. Internetez aurkeztzen dituzte interes tasa lotsagarritzko zerbitzuak PiggyBank bezalako putreek: 300 libra atoa emango dizkizute... sei hilabeteren buruan 582 itzultzekotan.

Urtero 30.000 ikaslek jotzen dute tipo horretako *payday loan* maileguetara. Ordaindu ezinik ezbeharrik eragin du. 2013an Manchester ondoko Ashton-under-Lynen bere buruaz beste eginda aurkitu zuten etxean Kane Sparham-Price. Zorra itzuli ezinik ez zizkion horetu lehendik zekartzan gorabehera



NFAFC Tasen eta Murrizketen Kontrako Kanpaina Nazionalak zabalduko argazkian, ikasleak manifestazioan Londresko karriketan joan den urtarrean. Langileen eta ikasleen arteko elkartasuna eskatzen dute afixetan. Hilaren 19an Westminsterreko zubian ia bi orduz kolapsatu zuten trafikoa "No grants = No Bridge" (Bekarik gabe, zubirik ez" aldarrikatzen zuen pankarta buruan zeramatzela. Estatuak ikasleei alokairuan eskaintzen dizkien etxeen egoera kaxkarra delako ere protesta eta okupazio ugari antolatu dituzte.

psikologikoak. Suizidatu baino ordu batzuk lehenago *payday loan*etan liderra den Wonga konpainiak hustu zizkion bankuan zeuzkan diru guztiak, beti ere lege barruan.

Emmanuel Sanseauk kontatu duenez, hedabide ingelesek sarritan erakutsi dituzte txirotasunean bizi diren estudiantek, xentimorik gabe bizirauten, apartamentu hondatuetan, kalefakzio-rik gabe. Badirudi jendea ohitu egin dela normaltasun berri horretara. Bizirauteko, ikasle britainiarren hiru laurdenek lan egin beharra daukate.

Lan prekarioetan, prefosta, *zero orduko* kontratuekin, hilabetea txukun amaitzeko bermerik gabe. Beste batzuek karitatezko elkarretara jo beharra daukate, elikagai bankuetara eta abar. Unibertsitate batzuk hasi dira aztertzen beren jangela sozialak antolatzea.

"Horra Cameronen gobernuaren -dio Sanseauk- balantze sozial harrigarria. Erresuma Batuan ekonomia berpizten hasi dela aldarrikatzen du harro, zirkinik gabe legitimatzen du miseria esanez diploma lortzeak baimenduko diela gehiago irabaztea, baina gero estatistikek erakusten dute diplomatuen %60 dagokien kualifikazioaren azpiko lanpostuetan ari direla beharrean".

Will Hutton unibertsitateko zuzendariak idatzi duenez, Cameronen politikek ondorio latzak utziko dizkiete familiei. Batetik herentzien gaineko zergak arinduz gurasoek beren pentsioa oparitu diezaizkieten haurrei, eta bestetik beka sistema suntsituz, aberatsak gai izango dira seme-alaben zorrak arintzeko, baina estuago dabiltzanak hondoratu egingo dira, daukaten guztia atzeratutako zorrak kitatzeko erabili beharragatik.

Unibertsitateak elkarren arteko lehia sartu dira, ikasle berriak erakartzeko marketina erabiliz, merkatuan soldata onenak lortuko dituztela iragartzen diren karreretan berezitu, beren izaera itxuraldatuz -dio Huttonek- irakaskuntza akademiko sendo batetik gama altuko enpleguetarako ikasketetara.

Horiek denak Britainia Handian gertatzen dira. Baina gure inguruan? *La Directan* Gloria Mbillak informatu du PPren gobernuan José Ignacio Wertek ezarritako politikarekin Madrilgo autonomi erkidegoan 70.000 gazte aurkitu direla unibertsitateko ikasketei uko egitera behartuta. Zor eta frustrazioak ez dira gutxiago izanen Madrilan adostu ezinean ari diren gobernu berria hasiko denean Europak agindutako 12.000 milioiko murrizketak aplikatzen. ■



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

zuri begira

Jon Arretxe, idazlea

«Jendeari etorkinenganako errespetu pixka bat sentiarazten badiot, ni pozik»

Entretenimendu hutsetik haratago, mezu soziala ere badute Jon Arretxeren nobela beltzek. Toure, bere pertsonaia, kanean ikusten ditugun afrikarren isla da. Arretxe, idazlea izateaz gain, bidaiazalea, opera kantaria, musikaria eta kirolaria ere bada.



Reyes Ilintxeta

@ReyesIlintxeta

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Idazle ezaguna zara, baina musikaria ere bazara. Nola hasi zinen horretan?

Umetan hasi nintzen amak behartuta. Bera oso musikazalea izan zen beti eta oso belarri ona zeukan, baina ezin izan zuen ikasi familia ez zelako diruduna. Argi zeukan seme-alabei musika erakutsiko ziela eta ni sei urterekin behartu ninduen eskoletara joatera. Lehenengo solfeoa, gero akordeoia, pianoa... Beti gogoz kontra. Orain izugarri eskertzen diot hori dena amari. Musika erraz irakurtzeari esker adibidez, orain kantatu ahal dut.

Opera kantaria zara, gainera.

Kantuan gaztetan hasi nintzen eta hel-duagotan Gasteizen eta Bilbon jarraitu nuen ikasten. Aldi berean, Bilbon, OLBE Opera Lagunen Bilboko Elkartean abestu izan dut urte askotan, baina Nafarroara bizitzera etorri nintzenean haraino joateak nagikeria ematen zidalako utzi nuen. Iruñean AGAO opera taldea aurkitu nuen, eta azken urteotan hemen nabil. Gainera, bakarlari paperak ematen dizkidate eta oso motibagarria izateaz gain, diru pixka bat ere ematen dit. *Don Pasquale* egin dugu azken urte honetan. Notarioaren papera egiten dut

nik eta umeentzat prestatu dugun bertsoian protagonista naiz.

Zer paper gustatuko litzazuke egitea?

El rapto en el serralloko Osminen ariak kantatu ditut, baina opera osoa oso gustura egingo nuke edo Simpson pertsonaia *La Tabernera del Puerto* zarzuelan.

Opera zaletasuna demokratizatzeke zer beharko litzateke?

Orain ez da boladarik onena arterako, oro har, diru faltagatik. Opera oso gauza garestia da. Sarrerak ere garestiak dira izugarritzko muntaiak direlako. Jende pila aritzen da lanean. Hala ere, gauza batzuk egin daitezke, adibidez, obra egokituak prezio baxuagoan. AGAOk halakoak egiten ditu herri askotan eta oso ongi funtzionatzen dute.

Bestalde, musika beti ikasgai *maria* izan da ikastetxeetan eta ez dugu oso serio hartzen. Osagarritzat dugu, baina oso garrantzitsua da.

Zergatik?

Gauza asko lantzen duzulako: sentimenduak, hunkitzeko gaitasuna... Musika irakasle ona edukitzeak ate asko irekitzen ahal dizkio pertsona bati.

Deustun filologia ikasi zenuen. Bokazioz?

Ia-ia lotsagarria da, baina hori ere amari esker egin nuen. Umetan, badirudi oso azkarra nintzela eta beti urtebete aurrreratuta ibili nintzen karrera amaitu arte. 17 urte bete berritan hasi nintzen unibertsitatean eta berdin zitzaidan zer ikasi, halako ideia garbirik ez nuelako. Amak, orduan, Deustuko Unibertsitatean Euskal filologia izeneko karrera zegoela ikusi zuen, eta oso euskaltzalea nintzelako hori egitea proposatu zidan. Horrela sartu nintzen, kasualitatez.

Tesia Basauriko euskarari buruz egin zenuen. Zer aztertu zenuen zehazki?

Aitita-amamak Basaurikoak eta euskaldun zaharrak izan arren, gurasoek galdu zuten euskara. Pérez aitita kanpotik etorritako familia batekoa zen, baina Basaurin jaioa eta euskara ikasi zuen. Euskaldun zaharra zen hura ere. Gerra osteko garaia izan zen gogorrena. Basauri betiko euskararen azkeneko mugan dago. Oso gogorra zen euskalduna izatea, eta gerra ostean jende askok utzion euskaraz hitz egiteari. Hori ikertu nuen nire tesian. Ondo zekitenak gerra aurretik jaiotakoak ziren, etxean ikasitakoak.



Ederki ezagutzen
du Arretxek
Iruñeko Baluarte.
Opera eta
zarzueletan
abesten du.

Jon Arretxe Pérez

1963, Basauri

Arbizun, Sakanan, bizi da. 24 libururen egilea. Haietako askotan bizikletaz egindako bidaietan ikusitakoak bildu ditu (Sahara, Amazonas, Karakorum, India, Txina, Nepal, Sumatra, Turkia...), nobela beltza eta bidai literatura uztartuz. Azken urteotan etorkinen bizimodua erakutsi digu Toure pertsonaiaren bidez. Kirolzalea, piano-jotzailea eta opera kantaria ere bada. AGAO (Asociación Gayarre de Amigos de la Ópera) elkarteak antolatutako opera eta zarzueletan abesten du.

Zuk nola ikasi zenuen?

Gure etxean anaia eta biok berreskuratu dugu euskara. Nik neure aldetik, autodidakta. Gure familian oraindik batzuk euskaldunak ziren. Aitaren anaia batek, adibidez, herri euskaldun batetik etorritako emakume batekin ezkondu eta euskara berreskuratu zuen. Senide batzuekin eta nire atarian bizi ziren euskaldunekin aritzen nintzen. Gainera, gure ikastetxean bazegoen Euskara ikasgaia. Guraso kooperatiba zen eta haiek erabaki zuten euskara irakatsi behar zela ikasgai bezala, gutxienez. Horrela, neure aldetik ikasi nuen eta ondoren euskaltegira joan nintzen titulua ateratzera, D titulua, orain EGA dena.

Basaurin euskaldun zaharrik gelditzen da oraindik?

Etxez etxe, baserriz baserri ibili nintzen galdezka eta ikusi nuen zenbait familiantan mantendu dela "sugetian", haiek esaten duten bezala, sukaldean. Gertatzen dena da oraingo gaztetxoek ez dutela bizkaiera egiten, batua edo nahasketa baizik. Basauriko euskara joan da.

Pena ematen dizu?

Apur bat bai. Euskalkien aniztasuna beti oso polita iruditu zait, baina ez da batera praktikoa. Batua behar dugu eta ez dago beste irtenbiderik. Hori bai, jendea sartu zaio buruan ia-ia gipuzkera baino ez dela batua eta hori ez da horrela. Lexiko dena da batua. Idazleok, kazetariak, irakasleek... galdu baino lehen lexiko hori erabili behar dugu, jendeak ikas dezan. Gure esku dago.

Ondoren Gorputz Hezkuntza ikasi zenuen.

Hori bai, hori nahita ikasi nuen. Deustun bertan karrera egin bitartean hasi nintzen euskara eskolak ematen eta 21 urterekin, Filologia amaituta, lanean jarraitu nuen. Bazirudien nire bizitza jada bideratuta zegoela eta orduan pentsatu nuen goizegi zela nire estudianten bizitza bukatzeko. Gainera, bidaiatu egin nahi nuen. Beraz, lana utzi nuen, eta gurasoak kasik akabatu nituen. Haiek gosea pasatutakoak ziren, aita batez ere, eta ezin zuten ulertu nola uzten ahal nuen lan finko eta on bat bidaiak egiteko.

Lau urte pasata Gasteizen Gorputz Hezkuntza izeneko karrera zegoela jakin nuen eta hara joan nintzen, 25 urterekin, berriz ikastera. Amaitutakoan,

plaza batzuk atera ziren unibertsitatean Gorputz Hezkuntza irakasteko eta horretan aritu nintzen hiru urtez, nekatu arte. Ito egiten nintzen unibertsitate barruan zegoen mafia guztiarekin. Azal lodiko jende asko zegoen, goranahi asko eta gainera ezin nituen bidaiak egin nik nahi nuenean. Beraz, lana utzi eta berriro gurasoak asaldatuta, ea zoratuta ote nintzen.

Ordurako hasi nintzen gauzak idazten eta nire liburuak gero eta gehiago saltzen zirela ikusita, pentsatu nuen ea bizi ote nintekeen idaztetik bakarrik. Egin nuen apustu eta pozik nago.

Euskal Herriko bihotzean bizitzen

"Arbizura kasualitatez iritsi nintzen. Han etxe berri bat prezio onean aurkitu genuen, lur zatitxo batekin. Zorionsua naiz nire ortutxoarekin letxugak eta tomateak zaintzen"

Eleberri beltzek salatzen dutena

"Eleberri beltzaren ezaugarri bat izan da azpian dagoen mundua erakustea eta salatzea. Hori ez da galdu behar"

Bizikleta zalea eta Gorputz Hezkuntzako irakaslea, kirolzalea zalantzarik gabe.

Bai. Ia 25 urte eman ditut triatloia egiten eta lehiatzen. Horregatik bizikletaz eginiko bidaiak ez ziren oso gogorrak niretzat. Ondo entrenatua nengoen.

Bidaiatzea, zure pasioa?

Hala izan da oraintsu arte. Hori ere kasualitatez izan zen, nire bizitzan gauza gehienak bezala. Patuak erabaki du beti nire partez. 18 urterekin gurasoekin bizi nintzen eta irabazitako diruarekin bidaiak egiten hasi nintzen. Hamar urtez, bidaiak laburrak egin nituen, eta ondoren, beste hamar urtez bidaiak lu-

zeak egiteari ekin nion liburuak idazteko helburuarekin. Bizpahiru hilabetez ateraldiak ziren, ni bakarrik, eta bizikletarekin. Beharra zen niretzat. Oso gustura bizi nintzen Euskal Herrian eta hura ez zen ihes egiteko beharra, bidaiari askori gertatzen zaien bezala. Ez zen nire kasua.

Besteengandik oso desberdinak gara euskaldunok?

Ez. Orokorrean euskaldunok europarrak gara. Antzeko helburu eta baloreak ditugu. Ni gehienbat hirugarren mundua deitzen dugun horretan ibili naiz. Hor lehentasuna da mementoa bizitzea eta bizirik irautea. Saiatu naiz nire bizitzan hori bera aplikatzen, mementoaz gozatu eta gero gerokoa. Aita enpresa batean hasi zen lanean 14 urterekin eta enpresa berberean pasatu zituen 50 urte. Erretiratzeko zegoenean minbi-ziak harrapatu eta hil egin zen. Argi neukan ez nuela hori bera niri gertatzerik nahi. Bidaietan hori ikasten da: bizitzaz gozatzen eta unea bizitzen etorkizunaz gehiegi pentsatu gabe.

Eta besteengandik zer ikasi duzu?

Pixka bat afrikar egin naiz gauza batzuetan. Abegi ona adibidez. Askok gustatzen zait jendea etxera etortzea. Afrikan ez zaituzte inoiz uzten hor botata. Beti irekitzen dizkizute etxeko ateak eta ez zer edo zer ateratzeko, batzuek uste duten bezala. Gauza bat da leku turistikoetan gertatzen dena eta oso bestelakoa gainerako lekuetan. Jende xumea oso abegikorra eta solidarioa da.

Eta orain?

Orain familia daukat, emaztea eta 9 urteko semea eta kontsekuente izan behar da. Azken urte hauetan toki bat aukeratzeko dut idazteko inspirazio moduan eta hara joaten naiz egun batzuk pasatzera. Izugarritzko pagotxa da nire familia. Ezin naiz kexatu.

Toure-ren sagako lau liburuak zuk *hiriko ipurtzulua* edo *giza zabortegia* deitzen duzun Bilboko San Frantzisko auzoan kokatu dituzu. Zergatik?

Hori bezalakorik ez dagoelako Euskal Herri osoan. Auzo hori Afrika txikia da. Han atzerrian bezala zaude. Nobela beltz bat edozein tokitan koka daiteke, baina niretan gai soziala, bazterkeria eta etorkin jendearen bizimodua oso



“San Frantzisko auzoan ikusten denarekin nobelak erdi idatzita dauzkat”

osagai garrantzitsuak dira.

Lau urte daramat San Frantzisko kaleko 43. zenbakian boladaka lanean. Bigarren solairuan eskuman idatzi nuen “19 kamera” eta pisu hori alokatu zutenean bigarren ezkerrekora pasa nintzen. Lagun asko ditut auzoan, baita SOS Arrazakerian eta hiesaren aurkako talde batean ere. Sekulako dokumentazio iturriak dira. Han gamelu ohiak, prostituta ohiak, jonki ohiak daude jendeari laguntzen. Kalean ikusten denarekin, nobelak erdi idatzita dauzkat. Halere, ihesaldi batzuk egiten ditut. Duela gutxi Etiopian izan naiz eta hurrengo liburua atzerrian kokatu behar dut, atzerrira joan ahal izateko.

Nola bizi dira etorkinak hemen?

Orain arte bizimodu gogorra izan dute, baina krisia hasi arte laguntza sozialekin edo lantxo batzuekin beti ateratzen zuten zer edo zer. Ez zuten presio handirik jasaten, denok nahiko ondo bizi ginelako. Orain, aldiz, desberdina da eta gainera jihadismoa kristoren putakeria izan da haientzat. Gehienak kokoteraino daude.

Nola ikusten gaituzte?

Esaten dute euskaldunok ez garela hain txarrak. Beste toki batzuetan kabroia goak direla. Hemen orokorrean, uste dut, elkertasun gehiago dagoela, mugimendu sozial eta elkarte asko. Errespetu pixka bat gehiago agian, baina pixka

bat, besterik ez. Oraingo egoera ez da batere ona.

Estolda jolasak sagaren laugarren liburukia atera berrian, bosgarrena bidean dator?

Bai. Nire Toure etorkin askoren nahasketa da. Oso pozik nago pertsonaia honekin, zelako harrera eduki duen, irakurleekin dagoen feedbacka... Jendeak estimatzen du Toure eta nik ere bai.

Askok esan didate orain beltz bat kalean gurutzatzen duten bakoitzean, beste era batera begiratzen diotela. Horrek ilusioa egiten dit. Jendeari etorkinengan pentsarazi eta errespetu pixka bat sentiarazten badiot, ni pozik.



Of the record: Ahots sakoneko kantaria

Opera kantaria da Jon Arretxe. Baxu ahots sakon eta ederra du, kontrastea egiten duena bere izaera jostalari eta askearekin. Bizikletaz heldu da elkarriketara. Iruñeko Baluartan egin dugu, berak hainbeste aldiz abestu duen tokian. Soinean ekarri duen kamiseta ere oso egokia: Cuencako "Las casas ahorcadas" izeneko eleberri beltzaren inguruko jardunaldietakoa. Han izana da eta joatekoa berriro, bere lanen promozioa egitera. Idatzi beza-l hitz egiten du: zehatz, argi, bizi, erraz eta erakargarri.

Irakurle gazteentzat ere idatzi duzu.

Oso gutxi, gertatzen dena da badirudiela nire liburu batzuk egokiak direla gazteentzat, eta zortea izan dut, batzuk hezkuntzako zirkuituetan sartu dira. *Ostegunak*, *Ostiralak* eta *Larunbatak* halako trilogia ganberroa da eta ez da gazte literatura, ikuspuntu hezitzaile batetik ez direlako batere eredugarriak, baina ez dakit zergatik, izugarri gustatzen zaizkie. Niretzat oso ondo, zenbat eta gehiago saldu, orduan eta gehiago irabazten dudalako. Orain oso pozik nago

Toureren liburuak ere hasi direlako sartzeko zirkuitu horretan eta niretzat oso garrantzitsua da nerabeek errealtate hori ezagutzea. Gero eta nabariagoa da errealtate hori herri guztietan eta ikasketxeetan lantzea oso gauza ona da.

Nolakoa da idazlearen egunerokoa?

Nik ez ditut bi egun berdinak eta hori gauza ederra da benetan. Gozamen hutsa da. Ez daukat errutinarik. Errutinak, nire ustez, gauzak egiteko grina itzaltzen du. Idazten ari naizenean egun osoa ho-

rretan aritzea gustatzen zait, horregatik boladaka etxetik kanpora joaten naiz. Idazlea naiz 24 ordutan, baita lotan ere. Lagunekin pote batzuk hartzera atera eta jende artean ideiak hartzen ditut. Bestalde, zure liburuak ezagutzera emateko mugitu behar duzu. Batzuetan nekagarria den arren, ni oso gustura nabil. Orain Espainian ari naiz lantzen. Lehen soilik euskaraz idazten nuen, orain dena itzultzen da gaztelaniara eta Madril, Cuenca, Gijón edo Getafera, adibidez, joaten naiz nire lanaz hitz egitera. ■



Kalean da otsaileko

aizu!

- Maputheen hizkuntza berreskuratzeko lanetan
- Biarritzeko Atabalek 10 urte
- AEK jendea
- Kepa Peñagarikano arin-arin
- Jazar: sorkuntzari hamaika leiho

Urte osoko harpidetza (Hego Euskal Herria eta Espainia) **29 €**

aizu.eus

Hamarkada galdua



Mikel Zurbano

EHUKO IRAKASLEA

Espainiako Estatuari Europar Batasunak ezarritako ekonomi neurri zorrotzak urrats desberdinetan gauzatzen joan dira. Atzeraldiaren hasieran, “debaluazio konpetitiboaren” aldeko neurriak hartu ziren batez ere. Langabeen igoerarekin batera langileen soldaten jaitsiera bizkorra bilatu zen. Horretarako lan merkatuaren erreforma izan zen giltza. Euroaren barnean egonik txanponaren debaluaziorik ezean, lan kostuen beherakada omen zen lehiakortasuna hobetzeko bide bakarra. Lanaren galerak eta soldaten mozketek zerga sarreraren zein gizarte kotizazioen beherakada nabarmena ekarri zuten. Jaitsiera horiek berehalako eragina izan zuten diru bilketa publikoaren beherakadan.

Bigarren urratsa gastu publikoaren murrizketa izan zen, batez ere gastu sozialarena. Madrilgo zein Gasteiz eta Iruñeko gobernuen finantza baliabideak gutxitu izanaren logika erabilita hezkuntzan, osasunean eta bestelako zerbitzu zein prestakuntza sozialetan murrizketa indartsuak eman dira. Orain badakigu adibidez, pentsio fondoetan zuloa –Estatuan 16.500 milioi euro– soldaten murrizketak eragindako kotizazio sozialen igoera xumeak izan direla.

Desberdintasun sozial eta ekonomikoaren igoerak itxuratzen duen aldia dator orain. Oxfam erakundeak (Gobernuz Kanpoko Erakundearen federazioa) duela bi aste aurkeztutako txostenak argi erakusten du: Zipreren ondoren Espainiako Estatuan eman da 2007az geroztik EBko herrialdeen arteko errenta banaketaren arloko desberdintasunen igoerarik handiena. Ondorioz, Espainiako herritarren %30 pobrezia edota bazterketa sozialaren arriskuan dago. Aldiz, Ibex35 delakoan kotizatzen duten enpresek aurreko urteko lehen bederatzi hilabeteetan beren irabaziak %22 igotzea lortu zuten. Langabeziaren

Desberdintasun sozial eta ekonomikoaren igoerak itxuratzen duen aldia dator orain. Oxfam erakundeak duela bi aste aurkeztutako txostenak argi erakusten du: Zipreren ondoren Espainiako Estatuan eman da 2007az geroztik EBko herrialdeen arteko errenta banaketaren arloko desberdintasunen igoerarik handiena. Ondorioz, Espainiako herritarren %30a pobrezia edota bazterketa sozialaren arriskuan dago

tamaina (%21,2) eta sortzen ari den kaltetate eskaseko lan prekarioa kontuan hartuta kohesio soziala are gehiago pitza daiteke etorkizunean.

Azken urteko BPGren %3ko igoera eta Gizarte Segurantzaren milioi erdiko

afiliazio gehigarria datu makroekonomiko positiboak dira aspaldiko partez. Baina Espainiako ekonomiaren oraintxe dituen arazo larriak ikusita, zazpi urteko atzeraldiak ez duela etenik izango erakusten du. Hasteko, zor publikoa oso indartsu igo da azken urtetan BPGren %100 izateraino. Are gehiago, bankuek jasotako diru publikoa barnean sartuz gero, zor publikoa BPGren %132 da. Iazko defizit publikoa %4,5 izan zen, Europako Batzordeak ezarritako mugatik gora hiru hamarrenetan. Eta kanpo zorra ere erraldoia du Espainiako ekonomiak. Orotara, Espainiako Estatu munduko zortzigarren herrialdea da zor osoari erreparatuta.

Azken zortzi urtetan Bruselak ezarritako defizitaren helburua ez du bete ahal izan Espainiako Gobernuak eta zaila du datorren gobernuak ere –edo zein kolore duela– 2016rako ezarritako BPGren %2,8ko muga betetzea. Helburu hori betetzeko 9.000 milioi euroko murrizketa gehigarria beharko da (urtebeteaz azpiegiturarako erabili ohi den kopurua). Murrizketak sakontzera jo beharko du gobernu berriak, beraz.

Austeritate aldi luzearen ondoren gastu soziala igotzeko grina handitu da, azken hauteskunde kanpaina ikusi dugun moduan. Baina zaila du gobernu berriak horiei erantzun egokia ematen, Bruselarekin tentsioa igotzeko aukerak handiak diren neurrian. Batzordearen atea jo beharko du gobernu berriak malgutasun eske. Defizit publikoaren helburua bete ahal izateko epea luzatzea eskatzea da normalena. Baina europar batzordekide batzuek (Pierre Moscovici sozialdemokratak barne) neurri zorrotzagoak nahi dituzte, gobernu berriak doikuntza neurri gehigarriak aurkezteko nahi dute eta ez dute defizita betetzeko epea luzatu nahi. Zazpi urte galduak ez dira aski izan nonbait. ■

Heriotzaren usaina (salgai)

Bazen behin errealitatea. Mundua mundu denetik aritu dira gizakiak (bai, bai, gizonezkoak batez ere...) errealitatea zertan den asmatzeko ahaleginetan. Galderak hain zorabio handia eragin zezakeenez, Jaungoikoa jaio zen. Gurasorik gabeko jaungoikoa, errealitateaz arduratutako izaki bizidunei kontsolazio apur bat emateko sortua. Beste batzuek, berriz, erantzuna esperientzian aurkitu nahi izan zuten: azken finean izaki arduragabeek sensazioetan oinarritzen dute errealitatea. Ikusi, ukitu, usaindu, dastatu, entzun... daitekeena da, ez besterik.

Baina senak -onak zein txarrak- beste zerbait zegoela esan zigun. Amodioa, logura, gosea, bakea, ametsak... Edota dirua. Ai, dirua... Diruaren agerpenak salerosketak errazteko helburua izan zuenean, arduratutako izaki guztiak saltzera eta erostera dedikatu ziren. Amodioa, bakea, ametsak... dena bihurtu zuten salgai, erosgai.

Eta ekinaren ekinez dena salduta eta erosita zegoenean, saltzeko eta erosteko ezer gutxi falta zenean, errealitateari erreparatu zioten.

Mundua mundu zenetik aritu zen nor bere bizitza bizitzen. Bizitza bakarra, heriotza bakarra. Eta gainontzeko guztia, ipuinak, kondairak eta elezaharrak,



Rosa Mari Martin Sabaris

EHUKO IRAKASLEA

Ikerketa historikoari esker (sic), palomiten, larruzko jesarlekuen, koloniaren edo bolbora eta odolaren usainak salgai. Ikaragarria, omen

baina ez errealitatea. Ahoz aho zebiltzan batekoak, eta aretoz areto ikusitako fikzioak. Baina ez egia.

Saltzen eta erosten jarraitu behar zenez, errealitateari azken itzulia ematen ahalegindu dira. "Errealitate areagotua", errealitateak berak informazio nahikoa ematen ez digunean. Edo "alegiatzko errealitateak" inguratzen gaituenak asetzen ez bagaitu.

Miarritzen amaitu berri den Ikus-entzunezko Programen Nazioarteko Jaialdiak Smart FIPA izeneko atalaren barruan narrazio berriak eraikitze-ko azken joerak aurkeztu ditu. Orain arteko gako-hitza transmedia bazen, hemendik aurrera dastamena eta usaimena oinarritzat dituzten esperientziak abiatzen hasi dira.

Esperientzia berriak direla diote. Baina, nik papera igurtziz usain goxoa zerieten liburuxkak gogoratzen ditut, duela urte asko geratu ziren zaharkituta. Eta egun usaimen-marketinaren atzean merkatal-guneen edota hotelen hamaikagarren apaingarria baino ez dago.

Gaur teknologiak ahalbidetu duenak *Famous Deaths* du izena. Muammar al Kadafi, Lady Di, Whitney Houston eta John F. Kennedy hil baino lau minutu lehenago, zer entzun zuten, zer usaindu zuten? Hori da kabina batean sartuta usain-entzuleak bizi dezakeen esperientzia, eros dezakeen bizitza, bizi dezakeen heriotza. Ikerketa historikoari esker (sic), palomiten, larruzko jesarlekuen, koloniaren edo bolbora eta odolaren usainak salgai. Ikaragarria, omen.

Errealia Miarritzen salgai. Usaimena, izaki arduragabeen zentzumena. ■

beira
margotu berria



SALSA MEHE EGINDAKO BERTSO MUSIKATUAK

DISKO BERRIA

kontratazioa 618 072 076 - 026
baga-biga
MUSIKA IDEIAK
Tel: 618 072 076-26 / www.baga-biga.es / info@baga-biga.es
221 PK. 48100 Murguía (Bizkaia)

Desgobernuan



Aingeru Epaltza
IDAZLEA

kuskizun polita antzezten ari dira joan den abendu-ko hauteskundeen ondoko agertokian. Rajoy nokeatu itxuran. Sánchez noraezean. Rivera predikari. Iglesias prestidigitadore. Gainerako liderak, begira, hitzaren bi adieretan. Hilabetea ederki joana da hauteskontziezikiko legea bete genuenetik eta oraino ez dago garbi nor izanen den Moncloako maizterra, ezta botoa ematera ez ote garen berandu baino lehen itzuli beharko. Behin-behinekotasuna bizi dugu, eta horrek ezinegona ekartzen dio ekonomiari eta zenbaiten arimari. Hainbatek gauzak zirt edo zart trenkaturik ikusi nahi dituzte, zeren kontra jo behar duten lehenbailehen jakeatagatik baizik ez bada ere. Niri, aldiz, gozoa zait desgobernu hau. Antzezlan, bederen, urrundu egin da ohiko gidoi-lerro aspergarrietatik. Aspaldi-ko partez, interesgarri dabil espainiar politika.

Gustatu zait Podemosen lotsagabekeria. Bere proposamenarekin, kortesia arau guztiak hautsi ditu Sánchezekin. Lerro hauek idazteko tenorean, PSOEren teilatuan da espainiar pilota. Haren arimaren erdiak Iglesiasekin akordioa egitera bulkatzen du. Bertze erdiak nahiago luke PPrekin eta Ciudadanosekin bere abstentzioa hitzartu, popularrek goberna dezaten. Kotsolamendu saria Rajoyren burua izan liteke. Horren alde lanean ari dira, esku azpiz nahiz agerian, Estatuko nahiz Europako aginte faktiko guztiak.

Gasteizko eta Iruñeko gobernuak, berriz, lehenbizikoa dute maite. “Sánchez-Iglesias operazioak”, egia bilaka dadin, sei diputatu jeltzaileen sostengua behar du. Alderdiak jadanik bere prestutasuna adierazi du horretarako. Urkulluren neska-mutilendako ametsa da berreskuratzea Estatuko politikan eragiteko XX. mendearen azken urteetan izan zuten ahalmena. Begi-bistakoak dira, bertzalde, Uxue Barkosi sozialistak gobernatzen ikusteak ekarriko lizkiokkeen onurak, Podemos bere sozioaren eta EAJ bere koaliziokidearen laguntzaz baldin bada. Madrilekiko tira-birak ezitzeak eta Iruñean PSN oposizio gisa desaktibatzeak arnasa emanen lioke jadanik sobera fronte irekita dauzkan gobernuari.

Horren guztiaren aitzinean, isilik bezain zuhur dago Bildu. Zer zentzudun bilakatu den denbora gutian ezker abertzalea! Hark ere beso erdia emanen luke Sánchez gobernuburu izatearen truke, orain arteko kartzela politikan ireki litezkeen artesien esperantzan. Itxurak itxura, sukar katalana ikaragarri apaldu da gurean.

Bertze kontu bat da zer aterako den zurrumbilo gaitz horretatik. Azken 40 urteko historiak ongi erakutsi du zein izaten den beti sozialistek bidegurutzeetan hartzen duten norabidea. Nafarroan aunitz dakigu horretaz. Hura etorri arte, goza gaitezen desgobernuaz. ■

Geriza



Itxaro Borda
IDAZLEA

Autoak zirurikan pasatzen ziren orduan adineko emazte ile zuriduna zegoen afixa handi bati begira. Poltsa astunak pausatuak zituen. Andere moko mehe eta konkorra ez zen kantitzen, ez zen higitzen... hormatua ematen zuen. Ikustez ezagutzen nuen eta geltokitik burrustan isurtzen ziren jendeen joan zaintsuaz axola gutxi zuela iruditzen zitzaidan.

Frantzia behere horretako *Le Refuge* aterpeen aipamena egiten zuen afixa erraldoiak. Diruz laguntzeko deiarekin, alabaina. Behin, idazkiaren paretik pasatzean mutiko gazte bat lurrera tuka zelatatu nuen: Romain, 18 urte, bere gurasoen

etxetik kanporatua, homosexuala delako. Antza, taulako hitzek ez zuten andere unatua izutzen, are gutxiago arranguraz kiribilkatzen. Alderantziz, zorabiatua zirudien.

Lanera nindoan. Eguna ez zen oraino argitua. Ateri zen bederen. Espaloian gelditu nintzen afixari so zetzan emazteari amultsuki beha. Pentsa, begi-kordela ederra osatzen genuenez!

Agian bere istorioa zuen emakume amilduak han irakurtzen, lesbiana zitekeen edo menturaz pan-sexuala, Christine & The Queens taldeko kantariak irribarrez zioen bezala.

Gauza segurra da: gaztaroan ala gaurkoan, geriza aukerarik ez zuen. ■

Gerra Handiari buruzko literatura Weimar Errepublikan

NAZIEK SUTAN KISKALTZEKO BEZAIN BAKEZALE ZIREN NOBELAK

Lehen Mundu Gerrak zauri handi bat utzi zuen Alemaniako gizartean, eta tabu bat: porrota. Horren inguruan zenbait “mito” sortu ziren –batez ere, Alemania su zelaian ez, diplomazian traizioz garaitua izan zela zioena–, baina porrot belikoa literaturan saihestu beharreko gaia zen. Gerra ez, ordea. Weimar errepublika gerratik sortu zen, eta, iragan hurbilari edota sistema politiko berriari zentzua eman edo kendu nahian, gerraren gaineko eztabaida eta interpretazioa borrokagune bihurtu zen Lehen Mundu Gerra akitu zenetik nazismoaren garaipenera doazen urteetan. Borroka ideologiko eta estetiko hori literaturan gertatu zen, batez ere.



Santi Leoné

@ororostorm

IRUDIAK: JACQUES TARDI

“Gauero lubakietan sartzen naiz jendea mutilatzeko eta hiltzeko”

“Gerra herri bati gerta dakiokkeen zorritzar handiena da, berdin irabazle ala galtzaile izan, eta haren ordeztu bakearen alde aritzen dena aberriaren alde ari da”. Hala dio Engelbert Winz-ek *Neues und Altes aus dem Westen* (Mendebaldeko fronteko albiste zahar eta berriak) bidaia-liburuan. Tituluan Erich Maria Remarque-ren *Im Westen nichts Neues* (Mendebaldean berririk ez) nobela ezagunari erreferentzia egiten dion liburu bakezale horretan, Frantziako eta Belgikako fronte izandakoan barna eginiko bidaian gerrako oroitzapenak eta gerrako lekuen deskripzioak batzen ditu egileak, lehenagoko arerioarekin izandako enkontruen berri ematen duen bitartean. Gerraren kontrako hondar testuetarik izanen zen Winzena: 1932an argitaratua, handik gutira, 1933ko maiatzean,

sutara botako zituzten naziek hainbat eta hainbat liburu, tartean Lehen Mundu Gerrarekin ikusmolde kritikoa azaldua zuten nobela ugari; horrela, akabera eman zioten borroka luze bati. Izan ere, armak isildu zirenetik, bertzelako baitaila bat gertatu baitzen Weimar errepublikako literaturan gerra handi hura interpretatzeko eta baloratzeko.

Modris Eksteins historialariak dio literatura arduratu zela 20ko hamarkadako Alemaniako gerrari buruzko gogoeta egiteaz, historia baino aise lehenago eta gehiago. Ez da ideia berria, 20ko hamarkadan gauza bera azpimarratu baitzuen Theodor Heuss kritikariak iruzkin batean: Ludwig Renn-en *Krieg* (Gerra) nobela eta Remarque-rena agiri historikoen edozein bilduma bezain inportanteak ziren, biak berak agiri historiko baitziren, gerraren lekuko.

Maiz, gerra berri hartako esperientzia traumatiko pertsonala barneratu, landu



eta nolabait adierazteko beharra zegoen gerrari buruzko liburuen abiapuntuan: “Urriaz geroztik, patruilako ofiziala naiz. Horrek erran nahi du gauero, gizon talde batekin, ingelesen lubakietan sartzen naizela jendea hiltzeko eta mutilatzeko”, idatzi zuen geroago editore bihurtu zen Peter Suhrkamp-ek; “Momentuz lasai gaude [...]. Egun osoko su etengabea eta hiru gas eraso gorabehera, gure nerbioak sasoian daude. Hondarrean, gas eraso bat bizi izan dut; hiru, hobe ki erranda. Ez da hainbertzerako izan”, idatzi zien Ernst Jüngerrek gurasoei 1916ko ekainean. Guziek, jakina, ez zuten Jüngerren flema, eta gerraren inguruan arraz interpretazio diferenteak sortu ziren.

Molde zaharrak gerra berri baterako

Gerra amaitu ondoko lehen urteetan –bai eta gerra amaitu baino lehen ere–, hainbat egile, heroitasun eredu klasiko



bati jarraiki, gerra abentura gisa irudikatzen saiatu ziren. Horretarako, urpekarietan ibilitako ofizialen narrazio autobiografikoak edo zeruko batailetan parte hartutako hegazkinlarien istorioak ziren bereziki egokiak –lubakietako gerrak, ordea, ez zuen epikarako hainbertzeko tokirik uzten–. Krudela izanda ere, gerra *gentlemen*-en arteko duelua da zenbait liburutan (ez da falta, adibidez, etsaiaren itsasontzi bat hondoratutakoan, itsasora eroritako ingeles batzuk salbatu zituen urpekari ofizialaren narrazioa); arriskuaren aitzinean zirrara sentitzeko aukera ere bada gerra, hainbaten ikuspuntutik: “une kilikagarria da arerioarenganantz hegan zoazenean, etsaia ikusi arren oraindik eraso egin baino lehen minutu batzuk dituzunean. Uste dut horrelakoetan pixka bat zurbildu egiten nintzela, baina zoritxarrez ez nuen sekulan ispilurik aldean eraman. Une ederra da, arrunt kilikagarria baita, eta nik mai-te dut hori”, idatzi zuen Manfred von

Richthofen-ek, baroi gorri famatuak, bere memorietan.

Ernst Jüngerrek printzipio antropologiko bihurtuko du arriskurako grina hori: “Garai bakoitzak bere lanak, bere betebeharrak eta bere plazerak ditu, eta garai bakoitzak bere abenturak. [...] Bizitza da lana, baina abentura poesia da. Betebeharrak lana jasaten laguntzen du, baina arriskurako grinak erraz bihurtzen digu lan hori. Horregatik lotsarik gabe onartzen dugu abenturazaleak garela”. Hein handi batean, halere, Jüngerren *In Stahlgewittern* (*Altzairuzko ekaitzetan*) salbuespena da lehen orduko liburu horien guzien artean: alde batetik, eliteko ofizialaren ereduari eusten badio ere, egiten duen gerraren deskripzioa aise errealistagoa da urpekarietako edo hegazkinetako ofiziale-na baino, eta, bertze aldetik, ekintzari, arriskuari eta instintuari –piztia bihurtzeari– egiten dion gorazarreak 30eko hamarkadako idazle nazionalistengana hurbiltzen du.

» Literatura arduratu zen 20ko hamarkadako Alemanian gerrari buruzko gogoeta egiteaz, historia baino aise lehenago eta gehiago

» Gerrak zonbiak sortzen ditu: hori ikusten dugu Remarqueren edo Rennen liburuetan, betebeharra makinak bezala betetzen dituzten pentsamendu eta sentimendurik gabeko soldaduak

“Haren aldean, orain artio egindako guzia lan akastuna da”

Kakotxen arteko hitzak Carl Zuckmayer idazlearenak dira, Remarqueren *Mendebaldean berririk* ez nobelari buruzkoak. Remarqueren liburua mugarri bat da Weimarreko literatura belikoan, baina egun batetik bertzera *bestseller* bilakatu zen eleberri hura kaleratu orduko, gerraren kontrako liburuaren kopurua ez zen txikia: Ludwig Renn –*Krieg (Gerra)*–, Arnold Zweig –*Der Streit um den Sergeanten Grischa (Grischa sarjentuaren inguruko eztabaida)*–, Ernst Gläser –*Jahrgang 1902 (1902ko belaunaldia)*–, Ernst Johannsen –*Vier von der Infanterie (Infanteriako lau)*–...

Gerraren kontrako literaturak anker-tasuna nabarmendu zuen, eta heroi klasiko abenturazaleari zonbi bihurturiko soldadua kontrajarri zion. Gerrarekin jarrera kritikoa duten liburuetan ohikoa da sufrimenduaren deskripzio errealistak eta gordina, eta protagonismo handia hartzen dute literatura gerrazalean neketan agertzen diren hainbat tokik, hala nola ospitaleak edo eroetxeak. Eroa edo herbala: soldaduak, gogoak edo gorputza gerrak txikitua, gerra ondorengo gizar-tean berriz integratzeko aukera galdu du, etorkizunik gabeko hondakina da. Garaiko pinturan ere, George Grosz-en edo Otto Dix-en artelanetan konparazioak, agertzen zaigu giza paisaia hori.

Maiz, errealismoa groteskoa izatera ailegatu eta umore beltzez tindatzen da: Leonhard Frank-ek, *Der Mensch ist gut (Gizakia ona da)* nobelan, soldadu bat deskribatzen du anputatu berri dioten zangoa –izterretik beheiti– otoika eta arrenka eskatzen; ekarri diotelarik, besoetan izan du, laztandu egin du, eta, bat-batean, lurrera bota du nazka keinu batekin: “hori ez da nire zangoa”; “ez zen haren zangoa. Erizainak, leher eginda, okerreko zangoa aterea zuen ontzitik”.

Gerrak zonbiak sortzen ditu: hori ikusten dugu Remarqueren edo Renn-en liburuetan, betebeharrak makinak bezala betetzen dituzten pentsamendu eta sentimendurik gabeko soldaduak. Hain zuzen ere, horixe leporatu izan zaio gerraren kontrako literatura horri, ez duela aterabiderik erakusten, etsipenean akitzen dela, inoiz ez iraultzean. Ludwig Renn-en nobela, adibidez, “soldaduen betebeharrak txikiak epopeia da”, –hala zioen 1929an Theodor Heuss kritikariak–, “dena da hain begi-bistakoa, soldaduek uko egiten baitiote gerrari buruz eta haren zentzuari buruz eztabaidatzeari edo gogoeta egiteari – ez du balio, zeren deus ere ez baita aldatuko”.

“Ez dira gerrak suntsituak sentitzen, gerrak purif katuak baizik”

Municheko *Völkischer Beobachter* egunkari nazian nobela bakezale guztiak –tira, inportanteenak– kritikatu

zituen Erich Limpach-ek, bera ere nobela beliko baten egilea. Remarqueren nobelaren ondotik, kontrako eta aldeko imitazio, plagio, parodia eta kritika ugari etorri ziren. *Mendebaldean berririk* ez argitaratu zen urtean, 1929an, krisi ekonomikoa ere etorri zen, eta geroago nazien gorakada. Gerraren kontrako literaturarekin batera, gerraren aldeko literatura berria ere publikatu zen 20ko hamarkadaren akabera eta 30ekoaren hasiera hartan. “Milioika herritarren sentimenduak iraintzen” zituen literatura bakezalearen aitzinean –Erich Limpach-ek hitzak berriz ere–, literatura berriak, gerraren krudelkeria eta basakeria ukatu edo ezkutatu gabe, gatazka belikoak beharrezkotzat jotzen zituen, eta gero eta ezaugarri zehatzagoak ematen zizkion etsaiari.

Remarqueren liburuaren ondotik, 30eko hamarkadako lehen hiru urteetan, ez da haren arrakasta berriz errepikatuko: giro politikoak ez zuen horretan laguntzen, batetik, eta, bertzetik, Remarqueren arrakastaren ondorioz, generoa komertzializat jotzen zuten intelektual gehienek. Heroiak edo zonbiak? Etorkizunik gabeko hondakinak edo suari esker indarberrituriko patriotak? 1933ko maiatzean, gerraren zentzua kolokan paratzen zuten liburu guztiak kiskali beharrekoen zerrendan sartuta, amaitutzat eman zuten eztabaida.





Eta gerrak bestseller bat ekarri zuen:

Erich Maria Remarque-ren *Mendebaldean berririk ez*

Aunitz izan ziren bi mundu gerren artean Alemanian argitaratu ziren gerra nobelak; Jörg Lehmann-ek, garai hartako literatura belikoa ikergai duen *Imaginäre Schlachtfelder* (Su zelai imajinarioak) izeneko liburuaren egileak, 600 baino gehiago zenbatzen ditu bere ikerketarako egokiak izan litezkeen aleen artean. Batzuek arrakasta handia izan zuten, bertze zenbaitek ez hainbertze, baina guzien gainetik bat bilakatu zen alemanez idatzitako inoizko libururik salduena: Erich Maria Remarqueren *Im Westen nichts Neues* (*Mendebaldean berririk ez*). 1929an argitaratua, nobelak eztabaida sutua piztu zuen garai hartako prentsan eta berehala bihurtu zen gerraren aurkako literaturaren ikurra, gerraren gaineko “egia” biltzen omen baitzuen. Gauzak, ordea, konplikatuagoak ziren.

1898an Osnabrücken sortua, Erich Maria Remarque, berez, Erich Paul Remark zen. 1921ean aldatu zuen deitura Remark-etik Remarque-ra, aitaren familiaren jatorri frantsesa aitzakia hartuta, eta, bide batez, erdiko izena Maria dotoreago batez ordezkatu zuen –soberan gelditu zitzaion Paul horrekin eta ama-

ren abizenarekin osatu zuen *Mendebaldean berririk ez* nobelako protagonistaren grazia: Paul Bäumer-. Alta bada, nobela ez da autobiografikoa: Bäumer ez bezala, Remarque ez zen boluntario joan 1914an –ezinezkoa zatekeen, hamasei urte baitzituen–; 1916an deitu zioten armadara, eta, hilabeteren buruan, zauritua izan zen frontearen, larriki zauritua ere –bertzeak bertze eskuan jasotako zaurien ondorioz, musikan egin nahi zuen karrera abandonatu behar izan zuen–.

Gerra ondotik, fama emanen zion nobela publikatu orduko, hiru liburu zituen idatziak –horietarik bi, argitaratuak–, ibilia zen kazetari lana egiten zenbait egunkaritan, eta gutunak trukatzten zituen garai hartako hainbat idazle handirekin. Nobela saltzeko propagandan, ordea, Ullstein argitaletxeak honela aurkeztu zuen Remarque: “Erich Maria Remarque ez da idazle profesionala; hogeita hamar urteko gaztea da, duela hilabete batzuk premia sentitu zuena, gerran zer gertatu zitzaion hitzetan paratzeko, esperientzia horri forma emateko”. Egilearen beraren laguntzarekin, horrela saldu nahi izan zuen argitale-

txeak liburua; alegia, gerraren gaineko egiazko txosten gisa, batailan eroritako soldadu anonimo guziak ordezkatzeko ahal zituen eskarmenturik gabeko gazte batek –inolaz ere ez idazle batek– presatua; bat-batean gerraren trauma gainditzeko beharra sentitu izanaren emaitza xaloa, inolaz ere ez asmo literario baten fruitua.

Bere kalitatea ukatu gabe, *Mendebaldean berririk ez* –Thomas Schneider ikertzaileak erakutsi duen bezala– marketin kanpaina baten ondorioa ere bada. Gerra-ospitala batean egin zuen egonaldian izan zuen Remarque gerrari buruzko nobela idazteko lehen ideia, eta horretarako han-hemenka ibili zen gerraren gaineko istorioak biltzen. 1928an onartu zion eskuizkribua Ullstein argitaletxeak, baina argitaratu baino lehen, edizio prozesu luzea sufritu zuen, nobela ahalik eta gehien despolitizatzea helburu zuena. Gerrari eta gerrak ekarritako ondorioei eginiko kritika latzenak bidean gelditu ziren.

Nolanahi den ere, argitara eman bezain fite, liburuak arrakasta izugarria izan zuen: 1929ko urtarrian publikatua, otsailean ehun mila ale saldu zi-

ren; maiatzerako, kopurua milioi erdira ailegatu zen, eta 900.000ra abenduan. Itzulpenak ere agudo iritsi ziren –Frantzian, Ingalaterran, AEBetan; euskaraz, bidenabar erranda, oraindik ez daukagu ez nobela hau, ezta Remarqueren bertze ezer ere: Susaren “euskarari ekarriak” webgunean, behinik behin, ez da haren arrastorik–.

Alemanian –bai eta Austrian ere–, liburuak polemika ekarri zuen prentsan; polemika, gainera, maiz idazlearen biografian zentratu zen, argitaletxeak nobela soldadu xalo baten kontakizuna aurkeztua baitzuen. Eskuin politikoak zorrotz egurtu zuen liburuari zerion bakezaletasuna, eta antialemantzat jo zuen nobelak gerrari egiten zion kritika; orobat, ezkerretik ere izan ziren kritikak, batez ere egileak liburuaren inguruan piztua zen polemikan parte hartzeari uko egin ziolako: apolitikotzat omen zuen bere burua.

Literaturan ere izan ziren erantzunak. Batzuk saiatu ziren *Mendebaldean berririk ez*-en arrakasta aprobetxatzen beren onurarako: konparazio baterako, Carl A. G. Otto, *Im Osten nichts Neues* (*Ekialdean berririk ez*) nobelarekin. Parodiak ere izan ziren, hala nola *Vor Troja nichts Neues* (*Troiaren aitzinean berririk ez*), Emil Marius Requark goitzenarekin argitaratua eta Troiako gerran kokatua, bai eta titulutik beretik beren haserrea erakusten duten arrapostu serio

eta umorerik gabeak ere: Eugen Erbeling-en *Im Westen doch Neues* (*Mendebaldean badira berriak*), edo Richard Kroener-en *Im Westen viel Neues* (*Mendebaldean albiste anitz badira*).


Liburuaren ondotik, AEBetan egin dako eta 1930ean estreinaturiko ber-

tsio zinematografikoaren txanda etorri zen: Alemanian, gero eta eragin handiagoa zuten naziak filma debekatzea lortu zuten –nahiz eta debekua 1931n deuseztatu zen–; Austrian ere debekatua izan zen filma, baina debekuak 80ko hamarkadaren hasiera artio iraun zuen, ofizialki bederen.

Mendebaldean berririk ez, jakina, sutara bota beharreko liburuaren zerrendan zegoen, eta egilea naziak gorrotatuena artean. 1933an, Hitler agintera ailegatu zen urtean, Suitzara egin zuen alde Remarque, eta geroxeago, Estatu Batuetara. Bere nobelaren arrakastari esker, ez zuen inoiz sos problemarik izan; Volker Weidemann kazetariak azaltzen duen bezala, neketan aurkituko dugu Remarque bezain bizimodu glamurrez bete izan duen idazle alemanik. Amerikan idatzi zuen egunerokoak, ordea, bertzelako irudia ematen du. Berrogei urte bete zituelarik, zera idatzi zuen: “Berrogei urte. Hori hogeita hemeretzi baino hamar urte gehiago da. Alferrik xahuturiko bizitza. Gramofonoa piztu dut. Argazkia atera diot gelari. Berriz bueltatzekoa ez banintz bezala. Dena azken aldia balitz bezala: uda;– etxea;– bakkea;– zoriona;– Europa;– bizitza bera, beharbada”. *Dena azken aldia balitz bezala* du izenburua Wilhelm von Sternburgek idatzi zuen Remarqueren biografiak. ■

» *Mendebaldean berririk ez* argitaratu zen urtean, 1929an, krisi ekonomikoa ere etorri zen, eta geroago nazien gorakada

» 1933ko maiatzean, gerraren zentzua kolokan paratzen zuten liburu guziak kiskali beharrekoen zerrendan sartu zituzten: akabo eztabaida literarioak



NORI BAINO, NOREKIN DEITU



Lander Arretxea Berezartua
@larretxea



Herrialde Katalanetan abiatutako proiektua da Eticom - Som Connexió eta Euskal Herrian ere martxan da. Telefonia eta internet zerbitzuak ahalik eta modu parte-hartzaile eta gardenenean eskaini nahi dituzte.



ETICOM - SOM CONEXIÓ

- **Izaera:** Kontsumo kooperatiba.
- **Lan ildoak:** Telefono eta internet zerbitzuak.
- **Bazkide izateko ekarpena:** 100 euro.
- **Lan ildoak:** Telefono eta internet zerbitzuak.
- **Noiztik martxan:** 2013.
- **Webgunea:** eticom.coop/eu/

Bestelako kontsumo ereduak aipatzen hasi eta normalean lehenengo sektorea etortzen zaigu burura: kontsumo taldeak, bertako produktuak... Baina kontsumo kritikorako neurriak ez dira jan-edanera mugatzen. Azpiegitura erraldoiak behar dituen teknologia eta telekomunikazio sareen alorrean ere sortu dira lehenengo alternatibak. Haietako bat da telefono eta internet zerbitzuak eskaintzen dituen Eticom - Som Connexió kooperatiba. Herrialde Katalanetan abiatutako proiektua da, baina Euskal Herrian ere martxan da dagoeneko.

Erabat burujabe ez, oraingoz

Ohikoa da han eta hemen Movistar, Euskaltel, Vodafone eta abarrek eskaintzen duten zerbitzu opako eta traketsaz kezak entzun edo irakurtzea. Bada, zerbitzu bera irabazi asmorik gabe, eta proiektu parte-hartzaile bezain gardenarekin eskainiz erantzun nahi dio Eticomek egoera horri. Funtsean, zentzua eman nahi diote "norekin deitu?" galderari.

Hori bai, gaur gaurkoz, oraindik ere enpresa handiagoen iturritik edan behar du Eticomek, Oscar Randok argitu duenez: "Telefonia mugikorrean guk lortu ahal dugun burujabetasun handiena da operadore mugikor birtuala (OMB) izatea, hots, sarerik gabeko operadorea. Espainian, Movistar, Vodafone, Orange eta Yoigo enpresek kudeatzen dute sarea. Araudia aldatu arte, guk es-

kaintzen ditugun zerbitzuak operadore horietako batekoak izan behar dira".

Bezere beharrean, bazkide

Zein da aldea orduan? Garrantzitsuenak: zerbitzua erabiltzen duena bazkidea dela, eta ez ordaindu eta kontsumitzerara mugatzen den bezeroa. 100 euroko ekarpena egin behar da bazkide izateko, eta trukean, kooperatibaren erabakietan parte hartzeko aukera dago: zein prezio ezarri, irabaziak zertara bideratu... Horrez gain, bazkide bakoitzak bost lagun gonbida ditzake zerbitzua erabil dezaten.

Bigarren desberdintasunak zerbitzuaren baldintzekin du zerikusia. Batetik, tarifa eta promozio nahasgarriak erabiltzeari uko egiten diote: 9,99 euroko prezioa ipini beharrean, 10 eurokoa jartzen dute. Bestetik, prezio guztiek BEZa barne dute hasieratik: ahal bezain kontratu ulergarrienak osatzen saiatzen dira, letra txikirik gabe; eta kontratatutako zerbitzuak eskaintzen duena baino gutxiago erabiltzen duenik egonez gero, tarifa merkeagoa hartzea proposatzen diote. Neurri horiek izkin egin nahi diete beste hainbat hornitzaileekin hain ohikoak diren ezuste eta disgustuei.

Eticomek telefono mugikorrearako zerbitzua soilik eskaintzen du oraingoz, baina "buru-belarri" ari dira lanean interneteko konexioa ere eskaintzeko. Horixe dute erronka, sektoreko joeraren kontra, gero eta alor gehiagotara eramatea etekin ekonomikoak baino behar kolektiboak lehenesten dituen kontsumoa. Ez da helburu makala. ■

Antxon Gomez, ANVko idazkari nagusi ohia

“ZUTIK EUSKAL HERRIA'REN OSTEAN ARRAUTZA GUZTIAK SASKI INSTITUZIONALEAN JARRI ZIREN”

1930ean sortutako ANV-EAE (Acción Nacionalista Vasca-Eusko Abertzale Ekintza) 2008an utzi zuen legez kanpo Espainiako Auzitegi Nazionalak. Alderdiaren historian hirugarren legez kanporaketa. Urte luzez Antxon Gomez (1964, Gasteiz) izan zen bere idazkari nagusia. 04/08 (*Segura*, *EHAK-PCTV*, eta *EAE-ANVko*) auzian auzipetu berri dute. Epaietan lortutako akordioaz eta ezker abertzaleko azken 15 urteetako ibilbideaz jardun dugu berarekin.

Axier Lopez / Xabier Letona

@axierL / @xletona

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

2000. urtera arte egingo dugu atzera. Batasuna sortu zen orduan eta zuek alderdi berritik kanpo geratu zineten. Zergatik?

Batasuna alderdi gisa sortu zen eta ANVk esan zuen ez zuela parte hartuko HB zen herritarren batasunaren apurketan. ANVren kultura politikoa beti egon da herritarren frontean parte hartzea. 1930eko hamarkadan estatu mailako Fronte Popularrean aritu ginen, frankismoan Euskal Frontean eta 80eta-ko hastapenetan HBren sorreran.

Bi arrazoiengatik egin dugu beti herritar batasunaren alde. Bat, ezker abertzalearen potentzialitate osoa jasotzeko modu bakarra da; ezinezkoa da enpresari txiki independentista eta alderdi komunistako kideak alderdi bakarrean egotea, baina bai herritarren batasunean. Bi, alderdi politiko bakarra ahula da Estatuaren aurrean eta bereziki errepresioaren aurrean, gero Batasunarekin argi ikusi zen gisan.

Gero ilegalizazioaren aroa iritsi zen. Ez zeundeten onenean Batasunarekin, baina 2007ko udal hauteskundeetan ezker abertzalearen marka izan zineten. Zer oroitzapen duzu?

Ezker abertzalea Euskal Herriko familia soziopolitiko handi bat da, ideologiaz eta antolaketaz oso anitza, Batasuna baino askoz gehiago da. Eremu komunista eta libertariorik sozialdemokrazia edo sozial-kristautasunerainoko esparrua har dezake. Eremu hori guztia geratu zen siglarik gabe hauteskundeetan, eta gure siglak haren sostengura jarri genituen; Aralar bazen, baina ezker abertzaleko oso esparru zehatza ordezkatzeko zuten.

Hauteskundeetan ondoren zuek ere legez kanpo geratu zineten. Zeintzuk izan ziren horren ondorioak ANVrentzat?

Ondorio ekonomiko oso handiak izan zituen. Ezker abertzale osoan, seguru-

enik ANV zen egoera ekonomiko onena zuen erakundea, 36ko Gerran ebatsitako ondarearen zati txiki batekiko kalte-ordaina -600.000 euro inguru- eman zigulako Estatuak 2002an. Askoz gehiago ere izan zitekeen, milioi eta erdi euroraino ere bai agian. Gure hainbat zerrenda legez kanpo jarri ondoren, guk kalte-ordaina ez kobratzeko *ad hoc* egindako legea atera zuten, esanez alderdiren bat legez kanpo egonez gero, kalte-ordaina galduko zuela. Hainbat egoitza ere galdu genituen.

Ondorio pertsonalak ere izan ziren. Ilegalizaziorako abian zen bide administratiboaz gain, hauteskundeetara aurkeztu ahal ez izateko [Baltasar] Garzonek bide penala aktibatu zuen. Horretarako hainbat kide inputatu behar zituen eta hala egin zuen Kepa [Bereziartua], Alazne [Arozena] eta nirekin.



2010ean *Zutik Euskal Herria* agiria izan zen inflexio puntuetako bat. Nola bizi izan zenuten zuek?

Ziklo politiko-militarraren amaiera adierazten zuen testu hark eta beste ziklo baten hasiera. ANVkoak izandako zenbait kide historikok aktiboki parte hartu genuen aldaketaren alde. Halako testuak, dena den, sarritan bihurtzen dira testu sakratuen gisakoak eta interpretazio askorako ematen dute. Testu hark eman zezakeen gero Sortuk egin duena egiteko aukera edo bestelako urratsak egitekoa.

ANVren bueltan ibili zinetenontzat, ondo garatu al zen *Zutik Euskal Herria*?

Guk uste genuen ziklo politiko-militarra bukatu ondoren, Estatuarekiko konfrontazio demokratikoaren zikloa irekiko zela. Horretarako tresna bat zen, esaterako, Adierazi Euskal Herria: 70 bat eragile eta norbanakoak biltzen zituen koordinakundea zen, Estatuarekiko konfrontazio demokratikoa bideratzeko, intsumisia, desobedientzia zibila eta gisakoak erabiliz. Nonbait, batzuek bide hori eten egin zuten.

“Guk uste genuen ziklo politiko-militarra bukatu ondoren irekiko zela Estatuarekiko konfrontazio demokratikoa, intsumisia, desobedientzia zibila eta gisakoak erabiliz. Nonbait, batzuek bide hori eten egin zuten”

“Alderdi bakarraren ereduarekin ezinezkoa da estatuekin konfrontazio demokratikorik bideratzea”

Independentistak Sarea zen beste tresna horietakoa, erreferentzialtasuna hartu zuen eta bat-batean leku guztietatik gasa galtzen hasi zen. Eta sortu zen Gure Esku Dago, zuzeneko planteamendu independentista batetik erabakitze-ko eskubidera iraganez. Beste zenbait herri mugimendu ere likidatu ziren, kale mailako bor-bor hori galdu egin zen eta arrautza guztiak saski instituzionalean jarri ziren.

EA, Aralar eta Alternatibarekin aliantza egin zen eta hori ona da gure tradizioan, hauteskundeetan ahalik eta bozka gehien biltzea ona delako eta instituzioak kudeatzeko aliatuak behar direlako. Okerrena da estrategia eta taktika nahasten direnean, hau da, EH Bilduko aliantzak estrategiko bihurtzea, zure proiektu politikoa hor lausotuz. Ika-mika handia izan zen *Zutik Euskal Herria* dela eta, batez ere erabakia hartzeko moldeaz, nork, nola...

Talka betiko muinean sortu zen eta ezker abertzalearen bi ikuspegi kontrajarri agertu ziren: batetik, oinarrian herri mugimendu indartsu bat duen he-

rritarren batasunaren antolaketa, gizartea aktibatua mantenduko duena; horrek, nahitaez, estatuekin konfrontazio demokratikora eramaten zaitu; eta bestetik, sistemaren barruan gero eta normalago ari den alderdia, gazteria eta sindikatuarekin batera arituko dena, baina gero eta zarata gutxiago aterako duena. Alderdi bakarraren ereduarekin ezinezkoa da estatuekin konfrontazio demokratikorik bideratzea.

Eta ilegalizazio haieetatik auzipetze hauek. Zu ere *Segura Auzian* sartu zintuen Auzitegi Nazionalak, baina aparteko abokatua izan duzun bakarria izan zara. Zer gertatu da?

Gure defentsa beti eraman du ezker abertzaleko abokatu oso ezagun batek eta Alderdien Legearen ildotik egin zen ANVren ilegalizazioaren defentsa hark bideratu zuen. Abokatu talde hark oso ongi ezagutzen zuen 18.000 orriko gure sumario zatia. Epaiketa hastea aurreikusitakotik lau bat hilabete lehenago, 2014an, Pernando Barrena etorri zen nirekin hitz egitera eta esan zidan jadanik ez nintzela ezker abertzalekoa eta ez zuela zentzurik abokatu talde berarekin izatea.

Horrek bi ondorio zituen. Batetik, epaiketa hasteko lau hilabeteren faltan, nork hartuko zuen sumario itzel hura? Ez zen erraza. Bestetik, ni deskolokatu geratu nintzen. Zer esan nahi zuen ni ez nintzela ezker abertzaleko kidea, beti mundu horretan lanean aritu naitzen? Nire interpretazioa da Sortuk oraindik baduela gairitu ezineko kontraesana herriar batasuna eta alderdi bakarraren artean. Horrez gain, haiek *prozesua* deitzen zuten horrekiko gu oso kritiko ginen. Jendeari ezin zaio kea saldu. Barrena etorri baino aste bate lehenago iritzi artikulua batean esan genuen hori, ez dakit horrek ere eragina izango zuen gu baztertzeko, baina handik sei-zazpi hilabetera Arnaldo Otegi antzekoa esan zuen: prozesurik ez zegoela, prozesua izateko bi alde behar direlako. Ez zuen zentzurik epaiketara bi taldetan joateak –ni eta gainerako 34ak–, baina hala erabaki zuten, eta azkenean *tartalarien* defentsan eta beste hainbat kontutan militante euskaldunekin aritutako abokatuak hartu zuten nire defentsa: Haizea Nuñez eta Fidel Sanchez. Eskertu nahi diet horrelako epaiketa zailari aurre egiteko azaldu duten prestutasuna.

Gertaera horiek zertan eragin dute auzipetuekiko zure harremanean?

Jakina, harremanak gaiztotzen dira. Zenbait auzipetuekin harremana ona da, baina beste batzuekin ez dut hitz egin.

Azkenean akordio bidez ebatzi da auzia. Nola izan da prozesua?

Urtarrilaren 11ko goizean fiskalaren zenbait lekukok deklaratu zuten eta arratsean akordioa eskaini ziguten. Hitzekoa zen. Ondoren, fiskaltza, AVT, Dignidad y Justicia (DyJ) eta defentsako abokatuak behin betiko akordioa finkatu zuten, eta denok onartu ondoren epaian txertatu zen. Bestelako sukalde lanik egon bada, guk ez dugu ezagutzen.

Zeintzuk dira akordioaren gako nagusiak?

Gure kontrako akusazioak eta biktimei erreferentzia egitea onartu ditugu; zigorra onartu dugu eta trukean ez goaz espetxera. Akordioa aho batez berretsi beharrekoa zen. Nire aurkako akusazioak ondokoak dira: prentsurrekoak ematea, manifestazioak antolatzea eta hauteskunde kanpaina prestatzea; eta gutzia Batasunaren aginduz egin nuela.

Akordioari buruz bi aldeek egin dituzten interpretazioak oso ezberdinak dira. Adibidez, DyJ-k dio “dena da ETA” teoria berretsi duzuela.

DyJ-k berak esan du aukera asko zegoela hainbat auzipetu kargurik gabe ateratzeko eta, beraz, nahiago izan dute denok zigortu, gutako batzuk errugabe utzi baino. Epaiaketan akordio asko eman ohi dira, baina aurrenekoz gertatu da halako makroepaiketa batean. 10 urte eskatzen, urte eta erdira jaitsi da,

kartzela saihestu, inhabilitazioa txikiak jarri... deskolokatu utzi gintuen lehen une horretan.

Interpretazioetan jarduera armatuaren gaitzespena agertu da.

Gaitzespen hitza ez da akordioan azaltzen. Gauza bat da akordioa eta beste bat hurrengo eguneko prentsurrekoan akordioaz esaten dena. Aurrerantzean bortizkeriaren erabilerari uko egingo diogula sinatu dugu. Ni ANVko kidea izan naiz eta ez dut inoiz biolentzia erabili. Inoiz erabili ez duzunari uko egi-teak ez dit kontraesanik sortzen.

Beraz, kartzela saihesteko aukera emanda eta kontraesanik sortzen ez dizula ikusita, akordioa oso ona da.

Ez da hain ona, ona izateko biktima guztien aitortza jaso beharko lukeelako. Biktima guztiekiko erreparazioa behar da aro politiko-militarra ixteko. Egia, justizia, erreparazioa eta ez-errepikapenerako eskubidea du biktima orok, baina bakarrik alde bateko biktimak aintzat hartzen ari dira. Horregatik ez gara normaltasun politikoan bizi. Ez da ahaztu behar kondena bat jaso dugula, espetxeratzea besterik ez dute eten.

Akordioak esperantzarik ematen al du etorkizuneko beste makro-prozesuei begira?

Gure ustez akordio hau puntuala da, baina denborak esango du. Gure “delituak” bi gradu jaitsarazi ditu aplikatutako artikulua eta hori bakarrik erabil daiteke “delituen” ondorioak larriak ez badi-ra; alegia, tartean biktimarik ez bada-go. Erakunde armatuko kideentzat edo kale borrokarekin lotutako kasuentzat ez luke balioko. Halere, ez da gutxi; beren jardun politiko publikoagatik 100 pertsona baino gehiago daude epaituak izateko zain.

Akordioaren bezperan, Rufi Etxeberriak urrats berriak ematera gonbidatu zuen EPPK. Bi gertakariak zerikusirik ba al dute?

Batzuek biak lotu nahi dituztela ematen du. Nik ez diot ikusten lotura errealik. Askotan ahazten zaigu preso politikoek eta beren senideek nahikoa lan dute-la eguneroko bizitzan, dispertsioak eta kartzelatzeak berak sortutako arazoei aurre egiten. Rufi Etxeberria buruzagi politikoa da, eta ez luke presoen gai-



“Pernando Barrenak esan zidan jadanik ez nintzela ezker abertzalekoa eta ez zuela zentzurik abokatu talde berarekin izatea”

“Giza eskubideen aldarrikapena amnistiaren aldeko borrokarekin batera eman beharko litzateke. Bi bideak ez dira kontrajarriak”

“Alderdi politiko bakarra ahula da Estatuaren aurrean eta bereziki errepresioaren aurrean, Batasunarekin argi ikusi zen gisan”



nean zama handiagoa jarri beharko. Presoei sostengu soziopolitikoa ematea dagokigu. Benetan zatarra iruditzen zait zama berriro presoan eta senideen bizkar gainean jartzea.

Nola ikusten duzu amnistiaren inguruko eztabaida?

Nahasten da helburu estrategikoa taktikoarekin. Independentzia eta sozialismoa bezain estrategikoa da amnistia, eta hala izan da ezker abertzalean beti. Gatazka politikoa amaitzeko modu bakarra da militante politikoei amnistia ematea, gatazka eragin duten arrazoiak

gainditzea ekartzen duelako. Amnistiaren aldarrikapenak izaera politikoa ematen die presoei.

Giza eskubideen aldarrikapena amnistiaren aldeko borrokarekin batera eman beharko litzateke. Bi bideak ez dira kontrajarriak. Azken hilabeteotan, amnistiaren aldeko mugimenduaren eta Sareren arteko planteamenduen talka irudikatu nahi izan dute. Baten batek azaldu beharko du zergatik den posible Sarek Baionan antolatutako manifestazioa Ipar Euskal Herriko amnistiaren aldeko mugimenduak babestea eta zergatik hori ez den posible Hegoaldean.

Horrelako barne gatazketan indar piloa galtzen da eta jende asko kokoteraino dago. Ilusio eta kimen falta nabarmena dago.

Gai hau akordioarekin lotuz, Filipe Bidarteren hitzak ekarri nahiko nituzke: “Gu kalean gaude, baina ez gara libre”. Preso politikoak ateratzen dira kartzelatik, baina ez dira libre, aurrekariak dauzkate –gure kasuan bezala–, kalte-ordainei aurre egin behar diete, markatuta daude, inhabilitazioak egon daitezke, eta abar. Amnistia beharrezkoa da jende hori guztia Euskal Herrian libre izan dadin. ■

EGIATARREN ONDORIOA: USTE BAINO GEHIAGOREKIN EGIN DAITEKE EUSKARAZ

Eñaut Beloki, Maddi Ezkurdia eta Itziar Redondo Donostiako Egia auzoan bizi dira. Astebetez goizetik gauera euskaraz bizitzeko konpromisoa hartu zuten eta saiakera egin dute. Bizipen baikorrak gehiago dituzte, ezkorak baino. Ez dira esperientzian parte hartu duten bakarrik. Egian Euskaraz Bizi Nahi Dugulako ekimenaren bidez urtarilaren 8tik martxoaren 4ra arte hamarnaka egitarrek hartuko dute parte.



Onintza Irureta Azkune

@oirureta

ARGAZKIAK: EGIA EUSKARAZ



Eñaut Beloki

Egia Bizirik auzo elkarteko kidea

“Ekimenaren lehen egunean lankideari euskaraz egitea pentsatu nuen”

Zer moduzko astea izan da?

Ondo joan da, ondorio positiboak atara ditut. Konturatu naiz inguru nahiko euskaldunean bizi naizela eta esfortzua egin dut inguru erdaldunera hurbiltzeko, esate baterako lantokian. Ekimenak balio izan dit txipa aldatzeko, egoera bakoitzean nola jokatu behar dudana pentsatzeko, kontzientzia hartzeko. Ahalgina bakarrik baino, taldean egiten baduzu ekimenak bizia hartzen du. Oso gustura nago.

Inguru euskaldunean betiko moduan ibiliko zinen. Lantokian zer moduz?

Lantokira kotxez joaten naiz lankide batekin eta harekin izan dut lehen hizkuntza esperientzia. Ekimenaren lehen egunean hari euskaraz egitea pentsatu nuen. Nik euskaraz egiten nion eta berak erdaraz. Konturatu nintzen dena ulertzen zuela, oso ondo ulertzen zuen. Enpresan euskara plana daukagu eta

euskara ikasten hasi-utzi ibilitako horietako bat da.

Ez zenion esan zergatik hasi zinen egun batetik bestera dena euskaraz egiten?

Asteartean esan nion. Ekimena azaldu nion eta galdetu nion ea axola zion nik berari euskaraz egitea: “Ez, ez –erantzun zidan–, ulertzen dizudan neurrian ez dago arazorik, hori bai, nik erdaraz erantzungo dizut”.

Arraroa egin zitzaizun elkarriketak bi hizkuntzetan izatea?

Pixka bat bai. Bizitasuna galtzen dela iruditu zait, gatza falta. Agian, ohitura falta da. Gainerakoan, ni ondo sentitu naiz, eta ez dut uste bera deseroso zegoenik.

Astea pasa da. Lankidearekin euskaraz egiten jarraituko al duzu?

Bai, saiaturko naiz. Beste lankide batekin proba bera egiteko aukera izan dut, baina ez naiz ausartu. Irudipena dut ez ote duen hain gustuko eta egia esan, ez dut harekin probatu. Agian, hurrengo batean euskaraz hasi ordez, ekimenaren berri emango diot, ea zer esaten didan.

Auzo elkartearen bertan nola aritzen zarete?

40 urteko gutxi batzuk gaude eta gainerakoak helduagoak dira. Ni iritsi nintzen garaian erdaraz egiten zuten gehiena.

Gaur egun idatzizkoa ele bitan egiten da, eta gauza batzuk euskara hutsean. Bilerak beti gaztelaniaz egiten ziren. Orain euskaraz egiten dira eta euskaraz ulertzen ez duenari itzultzaileak xuxurlatzen dio. Beti-beti ez da horrela. Erdaldunak hitza hartzen badu, gero batzuetan ez zara konturatzen eta erdaraz erantzuten diozu, eta denok erdaraz egiten bukatzen dugu.

Elkartean ari gara pentsatzen ea talde bezala zer ekarpen egin diezaiokegun ekimen honi eta agian bada garaia dekalogoia egiteko, elkartearen hizkuntza kontuak airean gera ez daitezen.



Maddi Ezkurdia

Trebeska dantza taldeko kidea

“Erdaraz erantzungo zidatela espero nuen eta sorpresak hartu ditut”

Ostatuan egiten duzu lan. Nola moldatu zara aste honetan?

Lankidea nire bikotekidea da, beraz euskaraz. Bezeroak kanpotik etortzen dira, eta euskalduna etorri ezean ezin nuen euskaraz aritu. Hala ere, egoera bat gustatu zitzaidan. Katalan bat etorri

zitzaidan eta lehenengo hitza katalanez egin zidan. Barkamena eskatu zidan, eta esan nion dena ulertu niola eta zidala axola. Konturatu nintzen askotan lehen hitza erdaraz ateratzen zaigula, eta berari lehen hitza katalanez atera zitzaion nahigabe. Dendara joan eta esaten dugu: “Lehen hitza erdaraz egingo diot errazteko, baina euskara egiten badiozu jakingo duzu badakien ala ez”.

Euskaraz erdaraz baino hobeto moldatzen naiz eta Euskal Herrian banago dendetara sartu eta euskaraz egiten dut. Atzo adibidez, denda batetik atera nintzen karroa uztera, euria ari zuen eta batek esan zidan, “*igual ese carro no está mojado*”, eta esan nion “oraintxe hartu dut eta bustita dago”. Euskaraz erantzun zidan gero.

Dendatan zer moduz moldatu zara?

Erdaraz erantzungo zidatela espero nuen eta sorpresak hartu ditut.

Sorpresa onak?

Bai. Egun batean opari bat erostera joan nintzen, hiru dendatan egon nintzen eta hiruretan bazekiten euskaraz, (nahiz eta lankideen artean erdaraz egiten zuten). Behin baino gehiagotan gertatu zait horrelako tokietan dena erdaraz egin izana. Harritu ninduen, eta poztu nintzen.

Dantza taldean?

Haurrekin ibili izan naiz urte askotan, eta gurasoeekin bilerak beti euskaraz egin ditugu. Bukaeran galdetzen diegu ea zerbait ez duten ulertu, zerbait gaztelaniaz azaldu behar den edo ez. Ez dugu inoiz arazorik izan.

Astea bukatu zaizue. Euskarari eutsiko al diozue?

Dantza taldekoek horixe esan dugu, astea bukatu dela baina berdin jarraitu nahi dugula, bai taldekoek eta baita ekimenean parte hartuko duten gainerako talde guztiek ere.



Astebeteko saioa egin zuten eskubalo taldekoek, Sudur taldekoek eta Haurgunekoek.



Itziar Redondo
Haurguneko kidea

“Iruditzen zait jendeak saiakera honetan sorpresa baikor asko hartuko zituela”

Astebeteko saiakera bukatu baino lehen ari gara hizketan, baina honezkero sentsazioen batzuk badituzu.

TELP ikastaroa egin nuen eta egia esan han emandako gomendioak, han egin-dako planteamenduak eta azal dutako aurreiritziak lehen ere kontuan nituela eta praktikara eramaten nituela iruditzen zitzaidan.

Inguru euskalduna al duzu?

Ikastolako irakaslea naiz, senideekin ere euskaraz egiten dut, bizitza euskaraz egiten dut. Nik uste barneratuta ditudala zenbait gauza. Adibidez, lehen hitza euskaraz egiten dut. Euskara hitz egin ez, baina ulertzen duen ezagunei ere euskaraz egiten diet.

Ele bitako elkarrizketak izaten al dituzu?

Jende ezagunarekin bai. Ni eroso sentitzen naiz, pentsatzen dut bestea ere hala sentituko dela, ez didate inoiz ezer esan. Aste honetan nire buruari jarri diodan erronka izan da ezezagunekin ere eus-

karaz egitea, alegia, euskaraz ulertu bai baina hitz egiten ez dutenekin.

Eta aukerarik izan al duzu?

Bai, bi aldiz. Dendan: “*Quieres una bolsa?*”, “Bai, eman lau mesedez”, “*Tienes la tarjeta de Eroski?*”, “Bai, tori”. Autobusean: “Umearentzako txartela emango mesedez?”, “*Qué?*”, eta umea seinalatuz eskatu nion berriro txartela. Keinuak erabiliz eta irribarrez hitz egin nion. Berak aurpegi ona ez zidan jarri eta berari aurpegi atsegina erakusteak balio du.

Irribarrea erabiltzea estrategia bat dela, alegia.

TELPen horri buruz aritu ginen. Tentsio momentuak izaten dira, zu haserretu zaitezke egoera horietan, negoziazioak okerrera egin dezake. Irribarrea erabiltzea beti da hobe.

Zein balorazio egingo zenuke?

Niri ez zait asko kostatu, inguru euskaldunean bizi naizelako eta betiko martxan ibili naizelako, baina arikena kontzienteagoa egin dudala esango nuke. Iruditzen zait jendeak saiakera honetan sorpresa baikor asko hartuko zituela. Guk uste duguna baino jende gehiagok daki euskaraz, edo ulertzen du. Aurreiritziak ditugu. Behin auzotar batekin hiru hitz gaztelaniaz gurutzatu ditugula eta barneratzen dugu ez duela jakingo euskaraz eta gero elkar eza-gutzeko aukera izan eta... badaki edo ulertzen du. ■

BABESLEA: **BIZKAIKO FORU ALDUNDIA**

gure artean 
euskaraz

Euskara airean dago: egunerokoaren txoko guztietara zabaldu da, eta nahi duguna adierazteko eta lortzeko erabil dezakegu. Egin dezagun hegaz euskararekin eta euskaraz lagunekin, kideekin, neska-mutil berezi horrekin... noranahi heltzeko. Geure modura.

www.bizkaia.eus

 **Bizkaia**
foru aldundia
diputación foral

Fruitua nahi? Zolda-belarra jarri



Jakoba Errekondo

Zolda-belarrak (*Symphytum officinale* eta *Symphytum tuberosum*) auzolane-rako iaioak dira. Beren ingurua, beren bizimodua osatuko duen ekosistema sustatzeko ikaragarritzko lana egiten dute. Adeitsuak dira aldamenen di-tuztenekin, eta maitagarriak dira. Batez ere, fruitu-arbolak dituzuenok kontuan izan. Fruituak izateko, arbolen loreak ernaldutako behar dira; horretarako erleak behar, eta horietatik gero eta gutxiago dugu. Hona gure arbolen oparotasuna-ren alde zolda-belarrak egin dezakeena-ren adibidetxo bat.

Zolda-belarra ongari naturala da. Berdetan zuzenean lurrari nahasiz edo luarrari eta simaurrari erantsiz, lurra berpizten eta landareak suspertzen ditu. Irakina eginda –kilo bat landare, 10 litro uretan, 10 egun, egunero irabi-tuz– berdetako lana biziago egingo du. Egosita intsektizida eraginkorra da. Edozein eratarik erabiltzen dugula, ar-bolaren lorearen emana hazi egingo da. Loreak erleak elikatzen dituzte. Erleek loreak ernaldutako dituzte. Fruitu gehia-go ekarriko du arbolak. Eta erleak ez-tia, propolia, polena eta abar emango dizu.

Zolda-belarra (*Symphytum officinale*).

AIWOK-CC BY SA

Zolda-belarrak elkarlan gehiago ere samurtzen du, baita elikatzen ere. Zolda-belarrak zabaltzen dituen loreek nektar ugari dute, eta hori intsektu mordoaren gutizia da. Gutizia ahortzen zaila: lore luzeko koniko sako-nak ditu, eta nektarra barren-barre-nean. Erleak muturra motxa, nonbait, eta nektarrera iristen ez, erlastarraren zain egon behar. Lagun potxolo horrek matraila indartsuak ditu, eta, zuzenean

lorearen oinean kosk eginez, zuloa egin eta nektarra zurruputzen du. Ondoren etorriko da erlea, eta txulo beretik nektar kondarra eta polena harrapatuko ditu. Zenbaitek, erle jendea urte osoan elikatzeke zolda-belarra hamaboste-ro moztuz haren loraldia atzeratu eta mailakatzen dute.

Zolda-belarrari 'ositxeka' ere deitzen zitzaioela jaso zuen Lakoizketak XIX. mendean. ■

IRAKURLEAK GALDEZKA

Kaixo Jakoba. Zelan akabatu ahal dut solora bidea hartu duen landarea: *Ipomoea purpurea*? Lagun batek ekarri-tako aldaxka denboraz zabaldu da, lurpetik sustraiak luzatuaz, baina alde batetik haitza eta bestetik porlana, kontrolatuta egon da orain arte. Iazko udan, oster, ikusi nuen beste toki batera egin zuela jauzi: solo ertzean, kon-post gozoaren gainean agertu zen, kalabaza orri artean ez-kutaturik. Susmoa daukat bazterrak garbitzen zebilen nire lobak eraman zuela belarrekin nahastean.

Ezina zen ateratzea eta ez nekien zer egin. Solora hartu du bidea eta profesionala nahi dut ekarri, baina nor eta zer egiteko? Landareak bizirik jarraitzen badu solo guztia

hartuko du. Ba ote dago erremediorik? Eta nork egin behar luke? Eskerrik asko.

Miren Nekane Aginaga (Markina)

Kaixo. *Ipomoea* landare igokaria da eta beste edozein lan-dare azpian hartuz hazten da. Ikaragarritzko indarra du. Era berean, ugaltzeko duen estrategia lore ugari eta milaka hazi ematea da. Hazi horietatik edo moztutako adarren bat itsatsita zabalduko zen. Aurre egiteko era bakarra moztu eta moztu eta moztu egitea da. Moztuz lurpean, sustraietan pilatutako erreserbak hustuko dizkiozu. Hala ere aurtan eroritako hazietatik berritzea ez da harritzekoa izango, beraz udaberrian landare berriak sortzen direnean adi, eta ikusi ahala ipurditik atera. Aurrerantzean loreak kentzea ez da txarra; ireki ahala kenduz gero hazirik ez du emango eta berririk sortu gabe bera kentzeko lanetara eman.

BIZI BARATZEA

Gure kultura iraultzen ari den liburua

Bloga: www.argia.eus/bizi-baratzea · [@bizibaratzea](https://twitter.com/bizibaratzea)



IRAKURLEAK LIBURUAZ MINTZO

Lierni Arrieta, biologoa:

“Handitan horrelako eskuak nahi ditut eta horretarako bide bakarra dago”

Jakoba Errekondoren liburua ere egarri geundela sumatu nuen liburu-dendara hurbiltzean, itxaron zerrendan azken bigarren nintzen, liburu-dendakoa nire atzetik... Landare maitaleok ARGIAko halako astekari aurkitu ezinik interneten bila ibiltzeari utziko diogu, hein batean behintzat. Gure memoria bahe baten modukoa da, eta potoloena gelditzen bada ere, neurri, proportzio eta ilargiaren gora-behera asko ihesi doaz.

Loralde ederreko liburua hartu dut eskutan, itxura deigarria, argazki politak eta maketazio garbia. Sustraiak aieratzeko-edo, poesiarekin hasten da

eta lurrean, uretan eta argitan sustraitu. Landareak landu ondoren, uzta bildu. Jarraian ilargi kontuak eta buru-haus-teak. Ondoren landatu beharrekoak banan-banan, barazkiak eta beste usain-belarrak. Azalpen sakonak grafikoki azalduta daude eta lanak eta eragozpenak saihesteko trikimailuak ere ageri dira.

Irakurlearen txanda dela esango nuke, haziak jasotzeko eta ereiteko ordua. Orokorrean asko gustatu zait liburua, baina bertan agertzen diren eskuak nire egin nahi ditut. Handitan horrelako eskuak nahi ditut eta lortzeko bide bakarra dago: Ekin baratzeari!

Eskuratu liburua sinaturik

Bizi Baratzea ARGIA n erosi zergo, Jakoba Errekondok eskuz sinatutako hitz batzuekin jaso dezakezu liburua. Egileak herriz herri ematen dituen hitzaldietan ere (ikusitako goiko zutabearen non-noiz) baduzu sinaturik eskuratzeko aukera.

Eskaerak:

943 371 545

www.argia.eus/denda · denda@argia.eus

Zure saltokian salgai jartzeko, jarri harremanetan gurekin.

Salneurria: 23 € · Harpideentzat: 19,50 €

AURKEZPEN HITZALDIK

Hauek dira ondorengo hitzorduek:

Otsailak 9

Eibar

... eta Kitto! Euska elkartearen, 19:00etan.

Otsailak 10

Bilbo

Ekoetxean, 19:30ean.

Otsailak 16

Goiatz

Dendale ostatuan, 18:30ean.

Otsailak 18

Iruñea

Civiox Condestable Jauregian, ordua zehazteke.

Otsailak 23

Anoeta

Baratze Parkean, 18:00etan.

Otsailak 25

Zaldibar

Lekua zehazteke, 18:30ean.

Otsailak 27

Erratzu

Hazien Egunaren barruan, 11:00etan.

ANTOLATU ZURE HERRIAN

Jar zaitez gurekin harremanetan eta behar duzun informazioa eskuratzeko duzu

sustapena@argia.com

📞 943 371 545

INDEPENDENTZIA **BUDUAREN ESKUTIK**



**Nagore Irazustabarrena
Uranga**

@irazustabarrena

Bois-Caiman (Haiti), 1791ko abuztuaren 14a. Hainbat esklabo bildu ziren budu zeremonia batean, Dutty Boukman *houngan* edo apaiza buru zutela. Animalia bat sakrifikatu eta juramentu bat egin omen zuten, eta Boukmanek frantziar zapaltzaileen aurka altxatzeko deia egin zien, mugimenduko buruzagiak izendatu ondoren.

Handik astebetera, abuztuaren 21eko gauean, Saint-Domingueko esklaboak matxinatu ziren –frantziar koloniak hala zuen izena– eta Haitiko Iraultza hasi zen.

Bois-Caiman errebolaren katalizatzaileratzat jotzen den arren, frogarik ezak eta testigantza urri lausoez askotariko bertsioetarako bidea zabaldu dute. David Geggus Floridako Unibertsitateko historialarik dio, esaterako, kaimanen basoan ez zela bilera bakarra egin. Lehenik, 200 bat laguneko zeremonia egin omen zuten, nagusiki erlijiosoa. Eta handik bizpahiru egunera bilera klandestinoago bat egin omen zuten Boukmanek eta iraultzako buruzagi izango zirenek, altxamendua planifikatzeko.

Hainbat historialari haitiarrek zailantzan jarri dute Bois-Caiman gertatu zenik ere. Zehazki, Léon-François Hoffmannek 1991n esan zuen Antoine Dalmas plantazioetako mediku frantziarrak asmatu zuela istorioa, esklaboak eta haien sinesmenak gutxieteko asmoz.



Bois-Caimaneko zeremonia, Andre Normil (1990). Historialariak ez datoz bat 1791ko abuztuko budu zeremonia haren nondik norakoak azaltzean; bada mito hutsa dela esaten duenik ere.

Mito ala errealtate, Markel Thylefors ikerlari suediarren arabera, “Bois-Caimaneko gertakaria haitiarren identitate nazionalaren parte garrantzitsua da, Haitiren genesiari berari lotuta baitago”.

Haitikoa esklaboen matxinadarik nabarmenena izan zen Espartakoren garaitik. Gainera, Antzinako Erromako altxamenduan ez bezala, Haitin esklaboek irabazi zuten. Iraultzak esklabotzaren instituzioa aldatu zuen, arrazen arteko harremanak berrikustea eragin zuen eta Europar kolonialismoa astin-

du zuen. Atlantikoko botere oreka birmoldatzea ere ekarri zuen ezinbestean. Etxean, esklaboek beren burua askatu zuten, askatasunari eusteko borroka egin zuten eta, 1804an, Haitiko estatu subiranoa sortu zuten.

Budua norbaiti kalte egiteko panpinei orratzak sartzeraz mugatu du mendebaldeko begirada miopeak. Karibeko esklabo haientzat askoz gehiago zen. David Geggusen hitzetan, “Bois-Caimanen budua indar bateratzaile eta iraultzaile bihurtu zen”. ■



KEN LUND

Sistema metrikoa, Tucsonetik Mexikora

1975ean, AEBetako kongresuak Sistema Metrikora Bihurtzeko Legea onartu zuen, herrialde osoa sistema metrikoa aldatzea helburu. Aldaketa abian jartzeko Batzorde Metrikoa ere eratu zuten. Besteak beste, Tucsonetik (Arizona) Mexikoko mugara doan estatu arteko 19. errepideko seinaleak aldatu zituzten.

Esperimentuak ez zuen arrakastarik izan, 1982an legea indargabetu eta batzordea desegin zuten, eta aldatutako seinaleak miliatan jarri zituzten berriro. Tucsonetik Mexikora 90 kilometroko –edo 55 miliako– errepidean izan ezik. Bide-seinaleetan sistema metrikoa besterik erabiltzen ez duen AEBetako errepide bakarra da egun. ■

EGIZU, EGIOZU, ASTERO BERRITZEN DEN OPARIA EREIN KAZETARITZA INDEPENDENTEA

HARPIDETU:

ARGIA ASTERO, HILEAN 12 € BAINO EZ.

ARGIA HAMABOSTERO, HILEAN 7 € BAINO GUTXIAGO

ARGIA HILERO, HILEAN 4 € BAINO GUTXIAGO



943 371545
HARPIDE@ARGIA.EUS
WWW.ARGIA.EUS/HARPIDETZA



ASTRAK 10 URTE

EZINEZKOAK ZIRUDITEN **BIDE PROPIOAK ERAIKITZEN**

1990eko hamarkada amaieran eta 2000ko hasieran hazkunde ekonomikoa puri-purian zela proiektu ugari jarri ziren martxan kultura eta turismoa suspertzeko asmoz. Gernika ere, Bakearen eta Kulturaren Hiria izaki, olatura igo zen: areto berriak, museoak, nazioarteko artisten eskulturak... Turismora eta ekonomiara begirako kutur eredu zen ordea, eta horrek baztertuta utzi zituen herriko gazteak. Erakundeen eskaintzan integratu ezinik, autogestioaren bitartez euren bide propioa egitea aukeratu zuten. Are gehiago, atzera begira ez ibiltzea eta euren historia bizitzea erabaki zuten. Herriari beste nortasun bat ematea bonbardaketatik eta arbolatik harago.



Asier Arrate
@AsierArrate

Abenduaren 24an, goizaldeko 5:00etan ekin zioten euren bideari. Herriko zenbait gaztek trenbidea igaro eta Gernikaren beste garai bateko ikur zen Astra arma lantegian sartu ziren. Erronka galanta aurkitu zuten, mailutzarrarekin itsututako atea bota zutenean: eraikin oso bat atontzeko, baina batez ere, gernikar “erbesterratu” haien beharrazanein erantzuna emateko eginbeharra. Hamar urte igarota, urteurreneko lemak dioen bezala, *Ezinezkoak okupatu zituzten*.

Okupazioan izan zen Oier Plaza Garzia, geroago batu zen proiektura Leire Lopez Ziluaga. Biek Astrako Koordinadoran parte hartzen dute egun, eta proiektuak bidean ikasitakoa oinarri, okupazioaz, burujabetzaz eta transmisioaz

mintzatu dira besteak beste. Aukera faltaren aurrean bide propioa hartu izanak gernikarrak ahaldu dituela uste dute. “Norbaitek zerbait falta dela sumatzen badu, badaki hutsune hori berak bete ahal duela”. Gazteentzat ezer ez egotetik aukerak izatera pasa dira hamar urtean, nahiz eta “kontziente ez izan”.

Egun Astra erabat barneratuta dago Gernikako egunerokoan. Hilero agenda kultural zabala eskaintzen du, eta herriko elkarte eta erakunde ugari baliatzen du ekintza, batzar edo bestelakoak egiteko. Ez hori bakarrik, Astrak eskainitako abaguneak talde berriak agertzea ekarri du. Emaizta bikaina, baina azpimarratu dute Astra ez dela horren arrazoi bakarra. “Gazteak izan dira oi-

narria, ez Astra, eta horren adibide da eraikina okupatu aurretik Iparragirre Rock Elkartea edo Trinkete Antitxokoa agertu izana”, azaldu du Plazak. Onartu du, “paradoxikoa” ere badela: “Hotsandiko kultur proiektuak ez dira bidea, baina, politika horiengatik ez balitz, ez ziren sortuko horrekin apurtu nahi eta Astra bezalako proiektuak ekarri dituzten dinamikak”.

Okupatutako eraikina ala zerbait gehiago?

Proiektua ez da ohikoa, eta eraikina lortzeko hartutako bidea ere ez. Gaztetxearen “estereotipotik” aldentzen da, baina zerk egiten du berezi? Plazak dio une hartan zegoen jokalekurako estrategia





DANI BLANCO

garatu zutela, irabazteko zer egin zitekeen aztertu eta aurrera eraman: "Askotan inertziak gauzak errepikatu egiten ditugu okupazioetan ere. Astraren kasuan, errepikatu beharrean sortu egin dugu". Dinamika horretan, azpimarratzekoa izan zen Astra berreskuratzeko borroka jabetza publiko eta pribatuaren arteko parametroetan planteatzea.

"Eraikina desagertzeko zorian zegoen eraikuntza enpresa batek erosi zuelako, eta berreskuratzeko bide bakarra erabilerak publikoa sustatzea zen". Behin hori lortuta, bakoitzak bere beharrianak planteatu zituen: gaztetxea, lokalak entseatzeko, elkarre bezala kultura garatzeko lokalak... "Hori guztia aztertuta hutsetik abiatu ginen".

Komunikazioa ere Astraren adierazgarri izan da, bereziki herriaren babesa lortu eta proiektua legitimatzeko. "Astraren erresistentzia ez zen harriak botatzea izan, komunikazioa baizik", azaldu du Lopezek. Bere esanetan, beti saiatu dira komunikazioa hurbila izan dadin. Esanez baino ekintzen bidez transmititzeari garrantzia emanez, eta herritarrak proiektuaren parte bihurtuz: "Hasieratik argi utzi du Astrak ez dagoela 'zuek' eta 'gu' bat herritarrekin. Ez dago Astrako kideen identitate bat".

Haatik, erraz ulertzeko moduko diskurtso horrek ez du eragotzi proiektua izendatzerako orduan zalantzak izatea. Kultur fabrika da gehien entzun dena, hedabideetan bereziki. Plazaren esa-

"Astraren erresistentzia ez zen harriak botatzea izan, komunikazioa baizik"

"Erabat bere bidea egin duelako da Astra den modukoa, ez da ez hobeagoa ez txarragoa"



netan ez da gustuko duen Astraren abizena: “Gure burua hurbilago ikusten dugu edozein gaztetxetatik kultur fabrika baten eredutik baino, baina norbaitek gustuko badu, aurrera, ez dugu bere aurka egingo”. Eraikina lortzeko moduari, erakundeekiko harremanari eta komunikatueta gaztetxe ez deitu izanari egotzi dio nahasmena. “Astrak duen gauza aberatsena da bakoitzak nahi duen bezala definitzen duela. Akatsa izan baino, aberastasun bezala ikusten dugu”.

Gernikara begira “abizenik” ez duela behar diote, baina onartzen dute kanpora begira Astra zer den azaltzea zaila dela. Herritarrek bereganatzeko espazioa da Astra, haien hitzetan, eta bakoitzak bere erara definitu behar duela. Zentzu horretan, ez dute uste Astrak ezer aldatu duenik okupazio mugimenduan: “Erabat bere bidea egin duelako da den modukoa, ez da ez hobe, ezta txarragoa ere”. Pertzepzio kontua dela diote, eta okupazioaren bidez sortzen diren espazio autogestionatuen inguruko ideia oso zurruna dagoela.

Kanpotik zabaldutako “esterotipoak” direla uste du Lopezek: “Okupazioa 1980ko hamarkadako gaztetxearen irudiarekin erlazionatzen da, eta hala ere ziur nago garai hartan ere oso gaztetxe dibertsoak bazirela”. Plazaren ustez arrazoi ezberdinak daude okupatzeko eta horregatik ez du merezi katalogatzen aritzeak: “Okupazioa prozesu

BURUJABETZAREN MUGAK

Kontuak publiko egitea erabaki zuten lehen unetik Astran. Gardentasunaren aldeko apustua, gauzak beste modu batean egin daitezkeela erakusteko aukeratzat hartu dute. Kontuen bidez ikusi zitekeen Astrak autofinantziazioaren bidez dependentzia ekidin zezakeela, eta Plazak azaldu duenez, horren bitartez soilik lortzen da burujabetza. “Edozein gatazka planteatzeko gai izateko, herri mugimenduentzat ezinbestekoa da burujabe izatea”.

Baina dependentzia ez da erakundeekiko bakarrik. Adibide ohiko, baina ez horren agerikoa jarri dute: “Astraren dependentzia, finantzatzeko jaia antolatu beharra da. Barran jendeak kontsumitzea behar dugu ekonomikoki aurrera egiteko, eta horrek kontsumismoa bultzatzen du. Hori dela eta, saiatu arren, ez dute uste espazio liberaturik existitzen denik, “gizartearekin kontaktuan zauden heinean”. Lopezen ustez ona da, Astra bezalako espazioek mugak ikusten ere laguntzen dutelako. “Askotan espazio hauetaz hitz egitean gauza onak baino ez dira aipatzen, eta ondo dago noizbehinka gure mugak azaleraztea, sistemaren mugak direlako”.

subjektibo eta konplexua da”. Desberdintasunak tarteko, argi dute gaztetxe bakoitzak bere ildoak dituela: “Astraren beste oinarrietako bat da beste espazio autogestionatuek egiten dutena errespetatzea”.

Errespetagarriak, guztien helburua delako tokian tokiko gabezia edo arazo zehatzei erantzuna ematea. Horren haritik, okupazioa tresna baino bide gisa ikusten dute; hasieran gabezia edo arazoa erakustea helburu duen aldarrikapena, eta gero horri alternatiba bilatzeko tresna: “Gauzak eskatu egin daitezke, baina okupatuz gero, eskuratu egiten dituzu”.

“Burujabetza sakratua da”

Astrak erakundeekin duen harremanak sortu du proiektuaren inguruko beste uste okerretako bat, Gernikako Udalarekin sinatutako lagapen hitzarmenak eraginda segur aski. Askori, eraikin berriak ikustean, kosta egiten zaie okupazioaren bidez eta autogestioz kudeatzen dela pentsatzea, baina Plazak argi utzi du, “hitzarmena negoziaketa gogor baten ondorio izan zen”. Gaineratu du ohikoa ez bada ere, badirela gaztetxe eta okupazio mugimenduan adibideak.

“Hitzarmena bai, baina autonomia sakratua da”. Ezinbesteko baldintza Plazaren esanetan. Horretan berebizikoa da Astrak egunerokoan lortu duen burujabetza. Hala ere Lopezek nabarmendu du hitzarmena negoziatzerako orduan, era-



Lehena eta oraina ezkerreko orrialdeko argazkietan: Astra arma lantegi izandakoa galtzearen Gernika. Okupazioan, parte hartzean eta herritarren bultzadan oinarritutako prozesua izan da, eskuineko argazkietan bilduta geratu den moduan.

bakitakoari eusteak ere autonomia irabaztea ekarri zuela: “Badirudi akordio bat lotzeak zerbaitetan amore ematea dakarrela, eta hori ez zen horrela izan Astraren kasuan. Hasieratik argi genuen gure proposamena parte hartze eta demokratia zuzenez herritarrek erabakitakoa zela, eta beraz ezin zela aldatu”.

Erakundeekin edozein akordio egitearen aldekoak ere ez dira. “Espazio baten lagapenaren atzean ez badago esfortzua, lana eta behetik gorako prozesua, ez du ezertarako balio”. Ez dute baliagarritzat ikusten udalak gaztetxe bat ematea. “Gehien jota, udalak espazio publiko batzuk identifikatuta izan ditzake, kasuren batean beharrianen bat izanez gero lagatzeko. Erakundeen kultur politiken barruan proiektu bezala gaztetxe bat egotea errorea da”. Argi dute Astrak ez zuela funtzionatuko behetik gorako proiektua izan ez balitz.

Lopezek ohartarazi du administrazio askok zerbitzuak itxi dituztela Astra bezalako alternatibak daudelako. “Honelako espazio bat izateak ez du ekarri behar erakundeek zerbitzu publikoak murriztea. Gernikan kultur etxea egon behar da”.

“Gauzak eskatu egin daitezke, baina okupatuz eskuratu egiten dituzu”

“Hasieratik argi genuen gure proposamena demokratia zuzenez herritarrek erabakitakoa zela, ezin zela aldatu”

“Erakundeen kultur politiken barruan proiektu bezala gaztetxe bat egotea errorea da”

“Astran egunero dabilzan asko ez ditugu ezagutzen, eta hori 16.000 biztanleko herri batean ikaragarria da”

Transmisioaren errorea

Herri mugimendu, eragile eta erakunde askoren buruhaustea da transmisioa. Pertsonen bultzatutako proiektu ororen errorea saihestezina da Plazarentzat: “Astran iraunkortasunaz mintzo garenean, sostengarritasun pertsonal eta kolektiboaz ari gara. Aurrera segitzeko prozesu berriak, jende berria behar da, bestela daudenak agortu ahal direlako”. Okupazioan zuzenean parte hartu izanak ere atxikimendu maila handiagoa ekarri diela iritzi du Lopezek. “Gaur egungo errorea da hamabost urteko pertsonak Astrara erakartzea”.

“Transmisioa izan behar da, baina bakoitzak bere erara ekiten segitzeko”. Gaur egun belaunaldi berriak badabilta ere, kudeaketan eta pertenezian hutsuneak nabaritzen dituzte. Horregatik azaldu dute asanbladan erabaki zutela Astrak antolakuntza ahalik eta arinena izatea, eraikinaren kudeaketak ez zezan lapurtu norbanakoaren indar guztia. Energia hori bakoitzaren ekimen eta borroketara bidera zezaten. Horrek ekarri du Astran inork espero ez zuen fenomeno koordinarako partaideen ustetan. “Egunero dabilzan asko ez ditugu ezagutzen, eta hori 16.000 biztanleko herri bateko espazio autogestionatu batentzat ikaragarria da”.

Pertenentzia, transmisioa, burujabetza... fenomeno guzti horiek aztertzeke dituzte. Abenduaren 24an urteurrena ospatu ostean, otsailean zehaztuko dituzte etorkizunera begirako errorea eta eginbeharrak. ■

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Urradura sakon batetik



Aritz Galarraga

@aritzgalarraga



Egiaren egarriz

HENRIETTE AIRE

Maiatz, 1989

Lehenik, Itxaro Bordaren *Emakumeak idazle* saiakera hartan izan genuen haren berri –“esan nion ez nuela parte hartu nahi liburu horretan, ni ez nintzela ez idazle sentitzen, ez emakume idazle sentitzen ere. Eta atera egin zituen olerkiak!”–.

Henriette Aire. Urepelen sortua. Kontxo, aitaren alaba, Aire ahizpa-neben arteko bat, nagusia. Hazka gehixeago eginez, harrapatu genion poesia liburu bat, *Egiaren egarriz*. Bordaren antologiako bi poema aurkitu ditugu bertan –apur batean moldatuak, finduak–, hirugarren bat gelditu zen bidean. Ordainetan, beste hemezortzi poemekin osatu zuen bilduma, guztira hogeita bat.

Josu Landak xehatu zituen: “Libre ezin bizitzeak eta maitasuna nahi bezala ezin gozatzeak” markatzen ditu denak –“Nahi duena ezin ukana duenak/ Eta ukan dezakena ez nahi/ Daukana ezin dezake maita”–; mundura egokitu ezinean dabilen gizakia dute protagonista–“Herria herri maitea/ Nahi zintuzket askatu/ (...) Bainan nola ditzazket/ Moztu zure kateak/ Ni loturik nagoenian/ Preso gizartean”–; eta are arrotzago sentitzen da emakumea mundu horretan, zapaldua –“Altza burua emazte/ Ez egon bide erditan/ Bizitzak balio du/ Bizitzea”–. Landak, oraindik: “Urradura sakon batetik sortzen dira hitzak”.

Urradura sakon hori zein izan daiteke, ordea. Akaso besterik, baina bat egin izan du publiko inoiz Airek: “Parisen bizi izan naiz, hamaika urtez. Hamaika urteren buruan, senarrarengandik banandu eta erabaki nuen berriz Euskal Herrira etortzea, hiru semeekin. Aitak gaizki hartu zuen, eta esan zidan: ez dut

nahi gehiago esan dezazun inori ene alaba zirela, eta ez dut nahi jin ziten gehiago etxera”. Urradura sakon hori garbi agertzen da *Uste zinuen* izeneko poema luzean, “dozena bat orrialdeetan zehar bizitzaren ikuspegi zaputu baina azkenean optimista” eskaintzen digun horretan. Ikuspegi zaputua: “Zure uztarria/ Ezin jasana duzula?/ Bakartasunean/ Eta zuhaurek/ Arduratu nahi duzula/ Bizitzeko gelditzen zaizun/ Zure biziak?/ Burutik joan ote zira?”. Baina azkenean optimista: “Ikusten zaitut zoriontsu/ Zure osotasunean/ Zoriontsu/ Maitasunean”. Eta optimista, akaso, nork daki, inoiz publiko egin izan duen honegatik: “Gero etorri nintzen, aita Bordelen zegoen ospitalean, hara joan nintzen eta oso ondo pasatu zen, txuritxuri, larri zegoen ohetik ni ikusita jeiki zen eta besarkatu ginen... Bidean esan zizkidan haiek ez baitziren aitaranak berarenak, inguruak esanarazi zizkion, haren malkoetan ikusi nuen”.

Bidean, halaber, nobela bat hasia, eta denbora eskasiaz ez egina. Domaia da, hartara, urradura sakon hark, edo beste batzuek, emaitza gehiago eman ez izana. ■

Henriette Aire Etxebarren Urepeleko Xalbador etxaldean sortu zen 1943ko maiatzaren 22an.



» TELEGRAMA

Azkaineko gaztetxeak elkartasun gaualdia antolatu du otsailaren 5ean: **Pelax** eta **2ZIO** taldeen kontzertua 22:00etatik aurrera **STOP Lemmy Kilmister** Mötörhead taldeko liderra hil zen, baina haren musikak gure artean segitzen du: Gasteizko **Hell Dorado** aretoak haren omenezko festa antolatu du otsailaren 6an, **Mötörhits** tributu-taldearekin **STOP Ukelele zaleek** Bilboko Garabia pabilioian dute hitzordua otsailaren 7an: 17:00etatik aurrera, **Ukedada** antolatu dute **STOP**

» DISKOA

Doinu gordinagoak



Joxi Ubeda



The Uski's
THE USKI'S

Baga Biga Produktzioak, 2015

The Uski's taldeak rock and roll, pop rock, surf rock, garage eta pop doinuak uztartzen jarraitzen du, baina apur bat gogortu, gordindu eta amorratu egin da. Disko berriko kantuak gogorrak dira, eta soinua gordinagoa eta zikinagoa da. Taldekideek melodiak sortzeko erraztasun handia dute, ahotsak garrantzitsuak dira, baina lan berrian koruak ez daude horren landuta eta gitarrek presentzia handiagoa hartu dute.

Taldekideei barrenetik irten zaie hori guztia. "Bizitzak apur bat katramilatu egin zaizkigu", esan zuten udazkenean diskoa aurkeztu zutenean, eta horrek eragina izan du euren musikan. Dena den, haien ohiko bizitasuna, etorria, gaitza eta piperra ez dute galdu, eta dozena

bat kantu polit bildu dituzte lan berrira. Urdulizko Tio Pete estudioan aritu dira, Jose Lastra teknikariarekin, eta ekoizpen lan ona egin dute.

Iñigo Eiguren (ahotsa), Jon Zameza (gitarra, baxua, ahotsak), Anartz Laka (gitarra, baxua, ahotsak), Oier Laka

(gitarra, baxua, ahotsak) eta Iñaki Astoreka (bateria) dira The Uski's taldeko kideak. Ibarrangelu eta Elantxobe herrietakoak dira, eta inguru horretan erabiltzen duten bizkaieraz kantatzen dute.

Hitzetan, beti bezala, eguneroko bizimoduko kontu txikiez eta ez hain txikiez mintzo dira, eguneroko gertaerez eta egoerez, harremanez eta sentimenduez, baina lan honetan aurrekoetan baino gehiago egin dute kritika soziala eta politikoa: "Zetan ete zabiz egun osue biharrin, bizije bertan izten nahi dozun beste ahal daizun erosi, zetako zabizen gaba ta egun Interneten sekule biziko eztozuzen bizijekaz amestuten" (*Begijek erei*), "Mr. Bajoi hametik dabilenien ustel usaine susmatzen dot airien, ardiz jantzitze etortzen diren arren demoninun buztana hanka tartien" (*Mr. Bajoi*). "Goiza hasten den ba-koitzean, zeure aurpegixe agertzen da niri buruen, zelan esan, egunon laztan, eta musiki ipini ta bixok jantzan" (*Goiza hasten*).

Taldea 90eko hamarkadaren amaieran sortu zen, bost disko dauzka kalean *-Itxosun zarati* (Oihuka, 2005), *Barikun* (Oihuka, 2007), *Katuek bezala* (Baga Biga Produktzioak, 2009), *Tximinotan* (Baga Biga Produktzioak, 2012) eta *The Uski's* (Baga Biga Produktzioak, 2015)–, eta kantuz kantu, diskoz disko eta emanaldiz emanaldi sendotzen ari dela nabarmena da. ■



Hiru herrialde, lau bertso-eskola eta aitzakiarik ez



BERTSOTRUK EKIMENA

Urtarrilaren 16an Barakaldon elkartu ziren Senpereko bertsolariak, Enkarterrietako Bertso-eskola (Kilika); Errezil-Azpeiti-Azkoitiko Bertso-Eskola (Erniarraitz) eta Gernikako Bertso-eskola (Lilibertso).



Eneritz Artetxe

Azaroaren 14an abian jarri zen Bertso-truk ekimena aitzakia bat baino ez da. Norbere herritik ateratzeko aitzakia, kanturako aitzakia, jolaserako aitzakia, harremanetarako aitzakia, poteorako aitzakia, mahai buelta baterako aitzakia... errealitate desberdinak ezagutzeko aitzakia.

Gu ere aitzakia horren baitan abiatu ginen larunbat goizez gure herrietatik, non eta Barakaldoko "puntan" kantatzeko, bertsoarekin jolasteko, astero bertso-eskolan gu bezala biltzen den jendea ezagutzeko, trago batzuk hartzeko eta neguko lehen hotzetan izoztuta utziko gintuen plater bero-beroa dastatzeko.

Senpereko bertso-eskolatik abiatu zen Gipuzkoa erdian Erniarraizko ki-deak jaso eta Enkarterriarainoko bidaia egingo zuen trena, eta badirudi Busturialdean geldialdirik egin gabe ezin zela pasa. Euskal Herriko punta batetik bestera beraz, hiru herrialde, lau bertso-eskola, lau errealitate, hogeita hamar lagun eta aitzakiarik ez.

Desafio baten izenburupean baina lagunartean bertsotruk joan ziren pottoak, hankaluzeak, hankamotzak, sei edo zazpi puntuko habanerak zortzira iritsi ezinik... ez baikara sekula lehen hitzetan abilak izan. Bertsoez gain ordea, "egun on" lotsati batetik hasi, konpromisozko "hau da hotza dagoena"-rekin jarraitu eta "hurrengoaren zain geratzen gara" irribarretsu bateraino trukatu ziren izenak, hari bolak, zuritoak, patatak, plastikozko koilarak, panderoak, beldurrak, aurreiritziak ("Barakaldon euskararik egingo al dute bai!", "Azkoitian eta Azpeitian bertsotan egiten ez duenik ba ote dago?", "Iparraldekoak...iparraldekoak dira!") ... eta trukatu genituen txaloak, algarak eta konplizitate begiradak ere, dena nola ez adin eta belaunaldi ezberdinetako bertsozaleen artean.

Bestelakoak izan ziren elkargune hartatik norbere etxeko puntaraino eginko itzulera bidaian genituen burutazio eta hausnarketak. Ikusi zen Senpereko

bertso-eskolan zer irakatsia badutela, baita urteetan bertsolarien sehaska izan den bailaran entzule izan nahi dutenak ere badaudela. Enkarterriko bertso-eskolak berriz dotore erakutsi zigun lau urtez behineko BEC-etik haratago euskaratik eta euskaraz bizi nahi duen Barakaldo bat badagoela eta bertsoa horretarako tresna bat gehiago dela. Badugu elkarrengandik zer ikasia, norbere bizipenetatik eta besteen bizipenen truke, topaketa bakoitza festa bihurtuz.

Beraz, esango nuke larunbateko zitan bost gradutan mingainak erre zizkigun patata platerkada baino zer bait gehiago sukaldatu genuela Barakaldoko kaleetan zein gaztetxe atarian, eta hau hasi baino ez da egin. Martxan da Euskal Herri osoko txoko txikienak ere zeharkatuko dituen Bertsotruk-a, bertsolari, bertsozale eta hurbil dabilen edonor xaxatuko duena. Gu zalantzarik gabe hurrengo topaketaren zain gertzen gara. ■

Beranduegi

DOINUA:

BIZKORRA EZ NAIZ BAINA BADAUKAT.

Zapirain anaiak XXVII. Bertso-Paper Lehiaketako
sorta irabazlea.



Ane Labaka Mayoz
@anepirata

1. *Belaunburuak bihurtu zaizkit
familia honen parte
zenbat sehaska kanta, bizipen
nahiz fikziozko pasarte...
Atzo esker hitz izandakoak
bihurtzen dira bihar ke,
sarri askotan zail da hartzea
betebeharrak bitarte
norberarentzat bi tarte...
hautu izan ez diren ardurek
zama handia dakarte;
beti besteak zaintzen jardun naiz
nitaz ahaztu naizen arte.*
2. *Amona batek ingurukoei
zor die mila maitasun
doako lana denak ordea
ez du nahiko duintasun.
Sukalde baten kabitzen bada
horrenbeste goxotasun,
pazientzi eta ume txikien
negar sarkorren oihartzun...
"Besteok lagun gaitzazun,
jakin nahi nuke astirik eta
indarrik ba al daukazun..."
galdera egin ez diotenak
ezin du ezetz erantzun.*
3. *Nahiz maitasuna uler lezaken
bakoitzak mila eratan
ezkondu eta mende erdia
gero elkarri zelatan
haserraldiak ugari eta
besarkadak horren bakan
behin estimatzen jakin gabea
sumatzen dut orain faltan,
gu bion arteko talkan
mila zatitxo erditu dira
bizitzen azken etapan;
lehen elkarrekin lokartzen ginen
gaur egun ohe banatan.*
4. *Mesanotxeko argazki zaharrak
ditu izkina horiak,
gu ere berdin horitu gaitu
denboraren memoriak
gure oheek gau ilunean
dirudite hilobiak,
non galdu dira garai bateko
izarapeko gloriak?
Errutinan eroriak
nire desio ezkutuenak
lapurtu dizkit Ongiak
mihia kontatu ezin zuena
gordetzen du klitoriak.*
5. *Bizitzan zehar irentsia dut
jakinmin adina listu
neukana eta zegokidana
onena zela sinistu.
Nintzena eta nahi nukeena
ezin nituen bereiztu
ametsen forma hartu ohi zuten
horma arteko zirriztu
guztiak ziren murriztu
nahiz ta tarteka berriz zerotik
hasteko gogoa piztu
nire beldurrek bihurtu dute
tentazioa arrisku.*
6. *Arrisku gisa ikusi ditut
hanka sartzeko aukerak
nahigabe hartuz besteek nitaz
esperotako jarrerak.
Hirurogeita hamar urteko
emakume hain onberak
ondokoei so ahaztu baitu
berez zer nahi zuen berak...
Urteen bilakaerak
nire barruan zabaldu ditu
borrokarako trintxerak
orain artean inoiz egiten
ausartu ez naizen galderak.*
7. *Amuen forma sarri gordetzen
da galdera ikurrean;
aldatu nahia orekan eta
esperantza beldurrean.
Etorkizuna ez, iragana
daukat esku ahurrean
zartatu dena baserriko lan
nahiz baratzeko lurrean
guztia ez da urre han...
Nekea daukat tatuatuta
orain azal zimurrean
nire burua ezezagun zait
ispiluaren aurrean.*
8. *Ezezaguna ezagutzea
niretzako da zilegi,
lehenik eta behin guztia argi
esango diot Joxeri
ondoren, berriz, mahai inguruan
seme-alabekin eseri:
"Lehertu egin naiz eta banoa,
ezin dut horrela segi,
sufritu baitut gehiegi..."
Maiz aldaketa batek ez dauka
zertan izan amildegi
berandu izan daiteke baina
ea ez den beranduegi.*

Hitz gezidunak

Gaia: Euskal abere arrazak

1.   2.

3.  4.  4.

LANKIDE GORITXIKI-CC BY SA

LANKIDE GORITXIKI-CC BY SA

JOSE MARIA PLAZOLA-CC BY SA

ARDI BELTZ-CC BY SA

ORBANAK DITUENA
1

OSPITALE PRIBATUA
GEHIEGI

HOBERA
ANPEREA

OSPAKIZUN, FESTA
NAFARROA BEHEREKO MENDIA

PORTU
ASEA

EGUZKI
MODURA

BAIZIK ETA
BIHOTZA DAGOEN ALDE

BARRURA
KOBARRANTZA

GARAILE
GEROZ (AL-
DERANTZIZ)

ARGIZARI
ALBANIAKO HERRITAR

GIPUZKOAKO UDALERRIA
2

3
BARIK

ELKARTU ADITZAREN ERROA
LEIA, HORMA

LANDARE ALEDUN
IZEKO

JAUTI
PISATZEKO TRESNA

PERDIGOIA
EGUNAREN ZATI ILUN

NAFARROAKO HERRIA
BARATZE

HAMAIIKA
ENERGIA

PARKE ZOOLOGIKO
BAIEZTATU

LAU ..., LAUOINKA
OMEN

4
ORDAINKETA

SUITZAKO IBAIA

Sudoku


Bete itzazu gelaxkak 1etik 9rako zenbakiak idatziz, zutabe, lerro eta 3x3ko koadro bakoitzean errepikatu gabe.

5		3		7	4			
	9			1		2	3	
		8	2		3			
	8					3		6
1		7					5	
			6		1	5		
	6	1		2			9	
			9	3		6		7

5x5

Zeharretara eta goitik behera, hitz bera.

1. Zumitzezko ontzi.
2. Martxan.
3. Zilarrezko diru.
4. Hinduismoan, Vishnuren azken haragitzea.
5. Sekula.



Soluzioak

5x5:
1. Saski. 2. Abian.
3. Siki. 4. Kalki.
5. Inoiz.



DANI BLANCO

ARGIA SARIAK 2016

Atxega txoko txiki batetik



Itsaso Zubiria Etxeberria
@itsasozubiria

Iritsi naiz. Badaezpada ere ordua baino hamar minutu beranduago, jada jende pixka bat bildua izango zela ziurtatzeko-edo. Eta hasi naiz begirada gazteren baten bila, lekuz kanpo xamar sentituta akaso, ondoan dudana bistaz ere ezagutu ez eta gure euskal mikro-munduko norbait izango ote denaren beldurrez. "Gazte hauek, izan ere, ez ditene inor ezagutzen!" aditu aurretik aliatu nahi izan dut ni bezalako beste gazte ignorantearen batekin.

Eta bagoaz barrura. Aurretik zein mahaitan eta norekin bazkaldu behar dudan ondo aztertuta. Eseri orduko lehen platera aurrean, eta hasi dira ondokoarekin bromak: "Honentzako labana hau erabili behar dela

Atxega Jauregian (Usurbil), urtarilaren 29an, banatu genituen 2015eko euskarazko komunikazio ekimen onenentzako sariak. Garaikurra: Anton Mendizabal eskultorearen artelana.

uste duzu ala beste hau?". Esku artean ibili ditugu ezagutu ere egiten ez ditugun tresnak –agian beste mahai batzuetan horrelakoak erabiltzera gu baino ohituago dagoen gonbidatuak egongo ziren, baina tira, uste dut sententzia orokorra izan dela–, baina dena tenedore berarekin janda ere guztia izugarria zegoela onartu beharra daukat.

Ederra da sariak intrigaz gozatzea, sariak nor diren momentuan ezagutzeko gogoz, ondoan dauzkadan hiru damatxoak (benetan ez direnak hiru, lau baizik) susmagarriki urduri nabaritzen. Eta altxa zaizkit bat-batean, Furundarenaren musikak lagunduta, lehen saria jasotzera. Hori poza nire, gazte ignorante konplizeak mikrofonoaren

aurrean saria eskuetan... Gure estiloko gazte aldrebesek ere jasotzen dituzte-eta ARGIA Sariak! Han ibili dira bata bestearen atzetik, irabazleak, txalo artean sariak jasotzen.

Banaketa bukatutakoan hasi da bals-a. Mahai batetik besterako mugimendua. Lagunen, ezagunen eta komenigarrien arteko dantza. Harekin egon, bestearekin hitz egin, eta hangoari kaixo behintzat esan beharko diot. Niri esana zidaten jendea ezagutzeko leku egokiak direla horrelakoak, baina guztiak oso okupatuta ikusi ditut; eta ni halako naiz, beste honetan nabilt... eta azalpenak ematen hasi beharrean nahiago izan dut Atxegako txoko txiki honetatik bailez gozatu. ■

Argia Sariak 2016

NORBERA ABIAPUNTU, GIZARTEA HELBURU

Informatzea, norberaren lana ezagutzera ematea, kulturaz nahieran gozatzea, eskubide bat defendatzeko laguntza bilatzea... Asko izan daitezke proiektuei ekiteko arrazoiak. Gehienetan pertsonalak dira egitasmoak, baina gainerakoekin partekatuta gizartearenak bihurtuak; zilegi da horiei aitortzea egitea: aurtan *Gure Bazka*, *Goiz Berri*, *Azpitululuak.com*, *Gora Gasteiz!*, *Loreak* eta Joxerra Senarri.



Iure Eizagirre
@iureeizagirre

IKUS-ENTZUNEZKOA

Gure Bazka

Hiru Damatxo ideia faktoriaren aurkezpen lana izan da *Gure Bazka* elkarrizketa sorta. Hamabi bideo-elkarrizketa Kepa Matxain, Lander Arretxea eta Unai Gaztelumendik ongi aukeratutako gonbidatuekin. "Saiatu ginen guretzako erreferentziak ziren eta interesgarriak zitzaizkigun pertsonak zerrendatzen, kanpora begira gai eta pertsona batzuk erakusteko modua zelako, baina baita gu haiekin harremanetan jarri eta ikastekoa ere", dio Arretxeak. Horregatik, ikus-entzunezkoetan jasotako ideiez gain, bazkalorduan banatutako hitz eta ezagutzaren plazera azpimarratu ditu.

Beñat Irasuegi, Estitxu Eizagirre, Beñat Sarasola, Lander Garro, Cat Boyd, Arantza Santesteban, Uxo Anduaga, Gari Garaialde, *Gure kabuz ala hil* dokumentaleko egileak, Lorea Agirre, Iñigo Astiz eta Joxerra Garzia izan dituzte bazka. "Sail izaera emateak elkarrizketa bakoitzetik harago, guztiari beste zentzu bat, osotasun bat, ematen dio".

Horretan utzi dute saila, "hainbat gaiekiko gure kezka eta posizioa zein zen adierazteko ere bazirenez, ikusi genuen hamabi horiekin ukitu nahi genituen alor gehientsuenak ukitu genituela".

IRRATIA

Goiz Berri

Goiz Berri irratsaioan emandako albisteekin esnatzen dira goizero Gure Irratia, Antxeta Irratia, Xiberoko Botza eta Irulegiko Irratiko entzuleak. 07:00etan ekiten zaio egunari, Kriztof Arotzarena eta Battitt Crouspeyren ahotsen, eta ostiraletan Arantxa Idierrek hartzen du bietako baten lekua.

Ipar Euskal Herria, Hegoaldea eta munduko albisteak dituzte ardatz, eta gaurkotasunaz informatzea helburu. "Egunero erredakziotik bidaltzen diguten erreportaje bat dugu Ipar Euskal Herriko gai bati buruz, nazioarteko albisteak saioan bi aldiz, euskal prentsaren irakurketa eta gonbidatu bat aktualitateari lotua egunero 15 minutuz". Astean behin gai sozial, zuzenbideko edo ekonomikoez kronika izaten dute.

Denboraldi berriko erronka entzuleei boz gehiago ematea izan da: "Astelehenero entzule batek txiste edo istorio bat kontatzen digu hurrengo asterako beste norbait izendatuz. Astearteko beste batek bere iritzia ematen du aktualitateaz. Alde horretatik erantzuna baikorra izan da".

Horri guztiari buruzko informazioa emateko lekua bilatzen dute astelehenero ostiralera 09:00ak bitarte.

INTERNET

Azpitululuak.com

Luistxo Fernandezek filmak azpitoluluekin ikusten zituen eta euskaraz horrelakorik ba ote zen bere buruari galdetu zion. Saio pertsonal bat egin eta "seme-alabekin arrakasta" izan zuela ikusita beste batzuek landutakoak hartu eta webgune txiki batean bildu zituen. 2008a zen eta jada 700 azpitoluluen muga pasa du. Ez da bere lana bakarrik izan, hasieratik izan baitu elkarbanatzeko ideia, bai azpitoluluak deskargatzeko bai kargatzeko garaian. Bietarako azalpenak aurki ditzake erabiltzaileak azpitoluluak.com webgunean.

Antzeko ahalegin instituzional batzuk ere badirela gogoratu du Fernandezek, baina pixka bat motelduta daudela uste du. "Filmazpit-en ari dira pelikula argitaratzen baina nik espero nuen aurtengo hasiko zirela beste asko publikatzen. Orain dela urte eta erdi inguru iragarri zen akordio bat Canal+ eta Eusko Jaurlaritzaren artean eta dozenaka film euskaratuko zirela azpitoluluen bidez esan zen eta gainera ondare publiko izango zirela. Ez dago notizia gehiago".

Iaz apur bat murriztu ziren Azpitoluluakeko erabiltzaileen ekarpenak eta aurtengorako erronka xumeagoa jarri zuen Fernandezek.



Ezkerretik eskuinera, goian: Arantxa Idieder (Goiz Berri), Joxe Arantzabal (azpitoluak.com), Joxerra Senar, Joxe Mari Goenaga (Loreak), Iñaki Gomez (Loreak), Iban Zaldua (Gora Gasteiz!), Zuriñe Estivariz Martinez de Antoñana (Gora Gasteiz!), Battitt Crouspeyre (Goiz Berri). Behean, Luistxo Fernandez (azpitoluak.com), Lander Arretxea (Gure Bazka), Mikel Roman (Gure Bazka), Kepa Matxain (Gure Bazka), Unai Gaztelumendi (Gure Bazka), Kriztof Arotzarena (Goiz Berri).

DANI BLANCO

SUSTAPEN EKINTZA

Gora Gasteiz!

Ez da urrun Marotok etorkinen aurkako eta gizarte laguntzen inguruko esanekin Gasteizko giroa gaiztotu zuen garaia. Orduan -2014ko azaroan- sortu zen Gora Gasteiz! herri ekimena, hain zuzen ere, egoera horren aurrean gizarte aktibatu eta herritar anitzen arteko elkarbizitza sustatzeko. "Sektore ugariatik, kasu batzuetan antolatuagoetatik besteetan ez hainbeste, sortu zen, erakusteko Gasteiz beste zerbait zela eta beste zerbait izan zitekeela, badaukala hiriak tradizio bat etorkinen hiri bezala, bidegurutze bezala", dio Iban Zaldua ekimeneko kideak.

2015eko apirilaren 18a hartu zuten gasteiztarrek aktibatzeke egun gisa eta Gora Gasteiz Eguna ospatu zuten. "Nahiko arrakastatsua izan zen eta lagundu zuen hirian egon zen giro aldaketarako. Uste dut orain hobeto arnasten dela Gasteizen gai horiei dagokionean, arazoak desagertu ez badira ere".

Gora Gasteiz! ez zen sortu betiko ekimen gisa, eta oraingoz taldea lozorroan badago ere, dokumentala lantzen ari dira: "Ez du jarraitzen bere horretan baina jarraitzen du espirituan beste mugimendu batzuetan".

IDATZIA

Joxerra Senar

Gizartea ekonomiari begira jarri den garaiotan, ekonomia kazetaritza era ulergarrian egitea ezinbestekoa da. "Nafarroako Kutxaren hondamendia, Volkswagenen BEZaren afera edo beste hainbat gertaera modu ulergarrian eta argigarrian azaltzea da iparrorratza", dio Joxerra Senar *Berria* egunkariko ekonomia kazetariak. Krisi aurretik ere gaiok modu "erakargarri eta pedagogikoan" lantzen saiatzen ziren eta horrek trebatu eta esperientzia hartzen lagundu die.

Krisiak enpresa eta erakundeen barruko gertaerei begira jarri du, besteak beste, kazetaritza. Ildo horretan *CAN: Eta hemen ez da ezer gertatu* liburua argitaratu zuen iaz Senarrek. Ikerketa kazetaritza mota horrek "borondate hutsetik haragoko zerbait eskatzen du. Nafarroako Kutxaren kasuan benetan zer gertatu zen jakiteko irrika nuen eta ELAk liburua idazteko proposamena egin zidanean aukera baliatu nuen. Inportantea da babes hori izatea, zure kabuz egitea ez delako batere erraza: zure lanarekin uztartu behar duzu eta denbora astialditik atara". Hala ere, jendeak ikusmina baduela, "eta euskaraz, apurka" ari direla kazetaritza liburuak ateratzen dio.

MEREZIMENDUZKO SARIA

Loreak f Ima

Film baten gutxi gorabeherako zikloa urtebetekoa omen da, *Loreak* filmarena al-diz berrindartu egiten da apaltzera doala dirudien bakoitzean. 2014ko Donostiako Zinemaldian estreinatu eta publiko eta kritikaren oniritzia jaso ondoren Goya sarietarako izendapenak arreta piztu zuen Espainiako Estatuan eta Oscar-etan parte hartzeko aukerak iaz nazioartean. Joxe Mari Goenaga eta Jon Garaño dira zuzendariak eta azkenaren esanetan, "sentsazioa dugu pelikularekin gertatutakoa txirrindularitzako mendiko etapa baten parekoa izan dela. Azkeneko mendia kategoria berezikoa izan da".

Helmugara ez heltzearen penaz dihardu, "ez delako erraza izango berriro horrelako koiuntura batean egotea", baina esperientzia oso ona izan dela dio. Gure hizkuntza, kultura eta nortasuna munduan barna eraman dituzte baina "ibilbide honetan gakoa pelikula Donostiako Zinemaldian aurkeztu eta izandako harrera positiboa da, uste dut horri esker etorri dela gainerako guztia".

Jasotako sariak beraien lanarentzat baino harago, euskal zinemarentzat direla sentitzen dute: "Pelikula txukunak egiten ari gara eta zentzu batean hori saritzen ari zarete eta ari dira". ■

Estitxu Eizagirre:

“Bizi egin nahi dugu. Eragin”

Euskarazko hedabideok jauzia emateko beharra dugu. Irautea ez zaigu aski, bizi egin nahi dugu. Eragin. Herritar denentzat erreferente indartsu izatea, eta herritar asko eta askorentzat, erreferente nagusi; hori da eman nahi dugun jauzia. Jauzi hori egiteko beharrezko dugu guztien bultzada. Horregatik, elkarlan zintzorako deia egin nahi dizuegu gizarteko hiru eragin-gune nagusiei:

Ekimen kolektiboei

Gizartean aldaketak bultzatzen dituen kolektibo bakoitzak beharrezko du balio berak partekatzen dituzten komunikabide biziak izatea. ARGIAren balio nagusietakoa bizitzaren burujabetza da: herritarrok gure bizitzaren jabe izatea, gure gorputzen, gure ekonomiaren, erakundeen, maila guztietako erabakien jabe... eta burujabe izateko, edo bizitza osoa demokratizatzeko, beharrezkoa dugu informazio independentea, kritikoa. Herritarrak beren bizitzan eta herrietan subjektu aktiboak izatea, hori da ARGIAk bere informazioarekin elikatu nahi duen irakurlea. Horregatik, ARGIAren moduko komunikazio proiektuak indartzea, ekimen kolektiboak indartzea da. Eta horrelako herritarrak izatea –burujabeak, aktiboak, eguneroko bizitza hobetzeko inplikatzaren direnak...– bada, baita ere, erakunde publikoen eta enpresa munduaren mesedetan.

Erakunde publikoei

Euskal erakunde publikoen helburuetako da herritarrak euskaraz bizitzea. Eta hori lortzeko modu eraginkorrenetakoa da herritarrentzat erreferente nagusietakoak euskarazko hedabideak izatea.

Euskarazko hedabideetan ematen duten denbora horretan, herritarrak euskaraz bizi direlako. Eta euskarazko hedabideek dakartelako helduen mundua euskaratik pentsatzea, edozein gairi buruz euskaraz aritzeko trebetasuna irabaztea...

Animatu nahi genituzke erakunde publikoak eragile aktibo izan daitezen: euskarazko hedabideak irautera kondenatu beharrean, erakundeek bultzada eman dezatela, hedabideok erreferentzialak izan daitezen. Eta askotan bultzada emateko modu bakarra ez da diru-laguntzak ematea; bultzada ikargarria izan daiteke, erdarazko medioetara bideratzen duten publizitatea euskarazkoetara bideratzea, edo erakunde publikoen esku dauden espazio publikoetan euskarazko medioen presentzia ziurtatzea...

Eragile ekonomikoei

ARGIA ekonomia sozialeko enpresa da, langileok gara jabeak. Eta gure balioak eguneroko lanean ere praktikara eramaten saiatzen gara: lurraldetasuna, euskara, bizitza duina erdian jartzea, berdintasun harremanak lantzea... Horregatik, egun korronte nagusi bihurtu den prekarietatearen kontra eusten diogu, pozik eta harro eutsi ere.

ARGIAren moduko ekonomia sozialeko enpresetan inbertitzea, gizarte osoa ahalik eta ongien bizi dadin inbertitzea da. Eta hori mesede da gure ekonomia-erentzat, baina baita erakunde publiko eta ekimen kolektiboentzat ere. Gure gizartea aberasten baitugu.

» Diskurtso osoa argia.eus-en irakurgai.





1) Lorea Agirre, Iñaki Petxarroman eta Iñaki Uribe.

2) Jokin Azkue eta Patxi Baztarrika.

3) Ainara Azpiazu "Axi" eta Jakoba Errekondo.

4) Joxe Anjel Arbelaiz, Anton Mendizabal, Amaia Mendizabal eta Uxue Ugartemendia.

5) Ilaski Serrano, Mikel Elortza, Maite Bidarte eta Joxe Mari Goenaga.

Johanna Alanen. Bullyingari aurre egiteko KiVa programan aditua



2009an hasi ziren Finlandian KiVa metodoa erabiltzen, bullying edo eskola jazarpenari aurre egiteko. Erasotzaileen kopurua erdira eta biktimena heren bat jaiste a lortu dute, eta herrialdeko Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeen %90etan ezarri da. Metodoaren arrakasta ikusita, hamar bat herrialdetara hedatu dute eta gurean ere, KiVa aztertzeko lan jarduna antolatu du Ikastolen Elkarteak. Besteak beste, programaren nazioarteko koordinatzaile Johanna Alanen izan dute gonbidatu.

“Bullyinga denen ardura dela ulertzen dute ikasleek”



Mikel Garcia Idiakez

@mikelgi

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Soilik biktiman edota erasotzailean zen-tratu ordez, talde osoan eragitea da KiVa-ren gakoa.

Ikasleak gaitzen saiatzen gara, biktimak defendatu ditzaten eta jazarpena ez dezaten onartu. Jende asko konturatzen den arren bullyinga gaizki dagoela, biktima defendatzen dutenen kopurua nahiko txikia izan ohi da, beraz helburua da haurrak aktibo bihurtzea, defendatzeko pausoa eman dezatela.

Eta hori nola lortzen da?

Haurrekin eztabaidatzen dugu jazarpen egoeretan dauden rol ezberdinei buruz, erasotzaile zuzen ez diren ikusle eta lekukoek ere rol bat daukatelako; adibidez, inguruan barrez aritzen direnek erasotzailea indartzen dute, helarazten dioten mezua da egoera entretenigarria eta dibertigarria dela. Guk ikusarazi nahi diegu prozesu horretan bakoitzak rol bat betetzen duela, zeregin bat, eta denena dela gertatzen ari denaren ardura eta erantzukizuna; bestelako rol bat jokatu dezaketela ulertzen dute, taldea-

ren presioari men egingo ez dion rola, eta jazarpena amaitzea ekar dezakeena. Ariketa ugari egiten ditugu horretarako, teoriko eta praktikoak, eztabaida taldeak antolatuz, rol jokoak eginez... eta haurrak konturatzen dira erabakia euren gain dagoela: jazarpena onartzen jarraitu dezakete edo zerbait egin.

Enpatia lantzea ere inportantea izango da...

KiVa programaren oinarrietako bat da haurren arteko enpatia sentimenduan sakontzea, ulertu dezaten nola sentitzen den biktima eta ondorioz berau babestu dezaten. Harreman sanoak garatzeko oinarritzko kontzeptuak lantzen hasten gara ikasleekin: enpatia, errespetua, nola komunikatu emozioak, nola interaktuatu gainerakoekin... Hori da abiapuntua, eta ondoren hasten gara jazarpenaz hitz egiten.

Erasotzaileak lanketa berezia behar al du?

Erasotzailearekin bakarrik hitz egiten da, baina talde-dinamikak ere mantenduz. Biak dira beharrezkoak eta kasuaren arabera bata edo besteak hartuko du indar handiagoa: bakarkakoa zuzena da, “badakigu zer ari zaren egiten eta honek amaitu egin behar du”, eta taldekakoa zeharkakoagoa da, konfrontazioa ez da hain zuzena, eta besteenganako enpa-

Onura akademikoak

“Ikusi ahal izan dugu KiVak haurren motibazio akademikoan eragiten duela eta hori da programaren balio handietako bat, jazarpenari aurre egiteaz gain haur eta gazteen ikas-prozesuari on egiten diolako: eskola-giroan eragiten du, ikas-giroan, motibazioan... eta haurrek jarrera baikorragoa dute eskolan”.



tia lantzea du helburu, biktimari eragiten zaion mina ikusaraztea... Hurbilketa ezberdinak dira, arazo berari aurre egiteko.

Zein da zehazki metodoak jarraitzen duen prozesua eta erabiltzen duzun materiala?

Hiru etapatan banatuta ematen da: 7-9 urteko etapan, 10-12koan eta 13-15ekoan. Material mota asko dugu, oso interaktiboa, bai on-line eta bai paperean, baita ikus-entzunezkoa ere, irakasle, ikasle eta gurasoei zuzenduak. Prebentziora eta interbentziora bideratutako tresnak dira, prebentzio lana oso inportantea delako, baina baita ere jazarpen egoera bat dagoenean horri aurre egiteko ikasle, irakasle eta gainerakoei baliabideak ematea. Urtero, ikasleek internet bidezko galdetegi bat betetzen dute anonimoki, konta dezaten ea jazarpen kasuren bat jasan duten edo ikusi duten, eta horrek informazio asko ematen digu eskolaren egoerari buruz, oso baliagarria da baloratu ahal izateko ea ikastetxe jakin horretan KiVaren bidez erabiltzen ari diren tresnak, ariketak eta eztabaida-taldeak ondo funtzionatzen ari diren ala ez.

Norbait bullyinga jasaten ari dela onartzea edo salatzea da urratsik zailena? Antzema-tea? Nola lortu lehenengo pauso hori?

Eskolako langileentzat ez da batere erraza kasu guztien berri izatea, eta

lehen aipaturiko galdetegi anonimoetan ikusi dugu, KiVako saioetan antzema-ten ez diren kasuak badaudela. Desoreka hori gainditzeko eta gertatzen diren kasu guztiak azaleratzeko bide ezberdinak aztertzen ari gara, eta hala, salaketa aurrez aurre egin beharrik gabe, aukera ematen dugu internet bidezko postontzietan ikasleek gertatzen denaren berri eman diezaieten irakasleei.

Bestalde, irakasleen egitekoa funtsezkoa da, formakuntza jasotzen dute, eta ikasleei erakusten diete egoera batzuk arruntak direla eta beste batzuk ez, zer den bullyinga eta zer ez, une jakin batean berdinaren artean gertatzen den gatazka ez baita jazarpena, baina bai berdintasun egoeran ez dauden artean eta botere hori baliatuz ematen den zapalkuntza sistematikoa.

Ziberbullyingari aurre egiteko ere balio al du KiVak?

Jazarpen mota guztiei aurre egiteko eraginkorra da, izan jazarpen fisikoa, internet bidezkoa, bazterketa sozialari dagokiona...

Hezkuntza komunitatearen eta Finlandiako Gobernuaren arteko konpromisotik jaio zen KiVa. Zein mailakoa da Finlandian ikastetxearen elkarlana komunitatearekin, herriarekin, administrazio publikoarekin...?

KiVa Finlandiako Gobernuaren erabakia izan zen, Gobernuak ezarritako pro-

"Harreman sanoak garatzeko oinarritzko kontzeptuak lantzen hasten gara ikasleekin: enpatia, errespetua, nola komunikatu emozioak, nola interaktuatu gainerakoekin... Hori da abiapuntua, eta ondoren hasten gara jazarpenaz hitz egiten".

grama, baina uste dut oraindik egiteko asko dagoela eskola, herri, komunitate eta guztien arteko elkarlana indartzeko, bullyingari benetan aurre egin nahi badiogu. Guk, une hauetan, batez ere gurasoei egiten dugu lan, oso garrantzitsua delako eurak inplikatzeko, zer esanik ez jazarpena antzemateko orduan, biktima bat dagoela jakiteko.

Bere horretan esportagarria al da eredu-a?

Materiala berdina da leku guztietarako, baina tokiko eragileekin egiten dugu lan, eta tokiko kulturara eta moduetara egokitzen dugu. Adibidez, KiVaren barruan konfrontazioa presenteago duten estrategiak eta konfrontaziorik gabekoak ditugu; bada, herrialde batzuek nahiago dituzte hizketaldi zuzenak (Finlandian adibidez, estrategia hau asko erabiltzen dute irakasleek, "honek amaitu egin behar du"), eta beste herrialde batzuetan aldiz, kulturalki konfrontazio hori ez zaielako proposa iruditzen, nahiago dituzte zeharkako lanketak, talde dinamika (esaterako, Herbehereetan). ■




Espainiarrei berdin zaie Katalunia joatea; euskaldunei... markagailuaren arabera

Ara egunkari katalanak argitaratu du Espainiako Estatuko biztanleen %42 dagoela Katalunian independentziari buruzko galdeketa egitearen alde. BERANDUEGIren ikerketa sailak jakin duenez, Marinaledan, Vallecasen, Gamonalen eta Mungia-ko batzokijan egin zuten inkesta, eta antza, bizkaitarren erruz ez da lortu erreferendumaren aldeko atxikimendua %100ekoa izatea. "Joder, zer nahi duzu? Barça Athleticceri 6-0 irabazten ari zitzaiola galdetu digute eta!", zuritu dute euren burua.

SAREAN ARRANTZATUA

Euskal Herria Komunista!



Inauteri hauetan sartu gola Iñigo Grisman bihurtuta

Mozorroarekin beti bezala azken orduan? Arzalluz erretiratu zenetik ez duzu parodiatzea merezi duen politikaririk ikusten? Maradonaz janztea modaz pasatuta dagoela iruditzen zaitzu? Lasai, BERANDUEGIk dauka soluzioa, politika, futbola eta aktualitatea-

nahasiz aurten zure lagunak harrituko dituen zerbait jantzi dezazun. Inauterietan, Iñigo Grisman da zure mozerroa (EAEko markoan betiere), gure lehendakariaren izaera grisak jogobonito pixka bat ere eman baitezake, zer arraio.

ARGIAKOEN (G)UNEA

Gure gaiak dira gure baloreak,
ARGIA kideak gure oinarria

OROIMEN HISTORIKOA
PAREKIDETASUNA
| HERRIEN MUNDUA
INGURUMENA
EUSKALTZALETASUNA
ELIKADURA BURUJABETZA
INDEPENDENTZIA
DEMOKRAZIA ZUZENA
DESOBEDIENTZIA ZIBILA
GIZA ESKUBIDEEN DEFENTSA
ERABAKITZEKO ESKUBIDEA
SEXU ASKAPENA

Atal honetan, herri eragileen lana ezagutarazi eta urtean zehar kaleratutako materiala zozketatuko dugu hilero ARGIAko harpidedunen eta Piztu Ezazu ARGIAren bitartez ekarpen ekonomikoa egiten duzenen artean.



ARGIA kazetaritza konprometitua egiteko erabiltzen ditugun baloreen arabera interpretatzen dugu Euskal Herriko errealitatea, baita munduko gainerako herrietakoa ere. Internazionalismoa eta nazioarteko elkartasuna lantzen dituzten EHko taldeak dira gure iturri nagusiak. Urrunekoaren berri emateko ere errora jotzen saiatzen gara eta, hala, hainbat hedabide independenterekin elkarlana bultzatu dugu. Jatorrizko herriak, kultura minorizatuak eta Estaturik gabeko herriak ditugu bidaide.

OTSAILEKO ZOZKETAK



Munduko Jolasak
(5 jolas)

Txatxilipurdi elkarteak
www.txatxilipurdi.com



Euskararen berreskurapena
(3 liburu eta dokumental bilduma)

Garabide elkarteak
www.garabide.eus



Askapenako materiala
(3 saski)

Askapena, erakunde internazionalista
www.askapena.org

PARTE HARTZEKO

☎ 943 371 545

gunea@argia.eus

www.argia.eus/gunea

Herri mugimenduko eragilea bazara eta zure lana ezagutarazi nahi izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan

ATXEGA JAUREGIA

jatetxea

ATXEGA
JAUREGIA



Aitzezarra, 1

Zumartegi industrialdea

© 943 37 11 50

21070 **Usurbil** (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com